# Herrialde-txostena: Txina

**basque
trade &
investment**

*2020ko ekaina*

+ Txina-ko bulegoa

+ Adimen Lehiakorreko Unitatea

BasqueTrade & Investment
Agencia Vasca de Internacionalización
Nazioartekotzeko Euskal Agentzia

GRUPO spri TALDEA

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
BASQUE GOVERNMENT

## AURKIBIDEA


1. DATU OROKORRAK ... 4
Gobernua ... 4
Biztanleria ... 4
Geografia ... 4
Ekonomia ... 4
Beste batzuk ... 4
2. BEGIRADA ... 5
3. TESTUINGURU SOZIO-POLITIKOA ... 6
4. TESTUINGURU MAKROEKONOMIKOA ... 8
4.1. Abagune ekonomikoa ... 8
4.2. Balantza komertziala ... 9
4.3. Atzerriko inbertsioa ... 9
4.4. Enplegua ... 10
4.5. Aukera ekonomikoak ... 11
5. KANPO-MERKATARITZA ... 13
6. ALDEBIKO HARREMANAK ... 19
6.1. Euskadi eta Txinaren arteko merkataritza ... 19
6.2. Euskadiren posizionamendua ... 22
6.3. Aldebiko inbertsioak ... 24
7. SEKTORE NAGUSIAK ... 26
7.1. BPGari egindako ekarpena ... 26
7.2. Negozio-aukerak ... 28
8. NAZIOARTEKO HARREMANAK ... 30
8.1. Nazioarteko kidetasunak ... 30
8.2. Merkataritza-akordioak ... 30
9. ASKOTARIKO ARRISKUAK ... 31
9.1. Herrialde-arriskua ... 31
9.2. Iruzkin kualitatiboak ... 32
10. ONDORIOA ... 33
11. ERREFERENTZIAK ... 34

## TAULEN AURKIBIDEA

1. taula: Hazkunde-adierazleak ....8
2. taula: Kanpo-merkataritzaren adierazleak, 2014-2018 ....9
3. taula: Txinaren kanpo-inbertsioen adierazleak, 2016-2018 ....10
4. taula: Lanaren adierazleak, 2019 ....11
5. taula: Txinak esportatutako produktu nagusiak, 2018 ....15
6. taula: Txinak inportatutako produktu nagusiak, 2018 ....16
7. taula: 2018an Txinak inportatutako produktu nagusiak, kategoria handien arabera (BEC) ....17
8. taula: Txinak Europako herrialde nagusietatik egindako inportazioak, 2018 ....17
9. taula: Euskadi-Txina merkataritza, 2014-2019 ....19
10. taula: Euskadik Txinara esportatutako produktu nagusiak, 2018 ....20
11. taula: Euskadik Txinatik inportatutako produktu nagusiak, 2018 ....20
12. taula: Euskadiren pisua Espainiaren esportazioetan, 2015-2020 ....21
13 taula: Espainiak eta Euskadik Txinara esportatutako produktuen ranking-a, 2015-2020 epealdian ....22
14. taula: Sektore bakoitzeko kuotaren ranking-a 2017an eta hazkundearen araberako kuota-eboluzioaren rankinga, 2012-2017 ....23
15. taula: Gaur egun Txinan finkatuta dauden euskal enpresak ....25
16. taula: BPGari egindako ekarpena sektoreka, 2017 ....26
17. taula: BPGari egindako ekarpena sektore ekonomiko eta industrialen arabera, 2017 ....26
18. taula: Merkatu-bolumenak, 2018 ....27
19. taula: Txinarentzat potentzial inportatzailea duten sektore nagusiak, ITC ....29
20. taula: Herrialdearen arrisku-balorazioa, COFACE ....31

## GRAFIKOEN AURKIBIDEA

1. grafikoa: Txinaren aukera ekonomikoak Covid-19aren ondoren, 2018-2021 ....12
2. grafikoa: Q1 2019 eta Q2 2020 balantza komertzialen alderaketa (milioi dolarretan) ....13
3. grafikoa: Txinaren bezero diren herrialde nagusiak, 2018 ....14
4. grafikoa: Txinaren hornitzaile diren herrialde nagusiak, 2018 ....14
5. grafikoa: Euskadi-Txina merkataritzaren bilakaera, 2000-2019 ....19
6. grafikoa: Euskadiren pisua Espainiaren esportazioetan, 2015-2020 (%) ....21

# 1. DATU OROKORRAK

## Gobernua

**Estatuaren izena:** Txinako Herri Errepublika
**Gobernu mota:** Errepublika sozialista, Alderdi Komunistak (PCC) zuzendutako sistemarekin
**Estatuburua: Jinping XI. presidentea**
**Lehen ministroa:** LI Keqiang

## Biztanleria

**Biztanleria guztira** (2020): 1.450 milioi[1]
**Hazkunde naturala** (2018): % 0,45
**Hiri-populazioa** (2019): % 60.3[2]
**Hizkuntza ofiziala:** Mandarin-txinera (Putonghua)
**Negozioetarako hizkuntza:** Mandarin-txinera/ingelesa
**Hiriburua:** Pekin
**Beste hiri batzuk:** Shanghai, Guangzhou, Hong Kong, Dongguan, Foshan, Tiankin, Chongqing, Wuhan, Harbin, Shenyang, Chengdu, Zhengzhou
**Moneta:** Renminbi (RMR) edo Yuan (CNY): Truke-tasa: 1 euro= 7,845CNY (2020/05/27)

## Geografia

**Klima:** Tropikala hegoaldean, subartikoa iparraldean
**Baliabide naturalak**: ikatza, burdin minerala, petrolioa, gas naturala, merkurioa, eztainua, tungstenoa, antimonioa, manganesoa, molibdenoa, banadioa, magnetita, aluminioa, beruna, zinka, metal arraroak (lur arraroak), uranioa, energia hidroelektrikorako potentziala, erein daitezkeen lur emankorrak

## Ekonomia

**BPG** (2019): 14.140,16mM USD[3]
**Manufaktura arloko BPG** (2018): 4.002,75mM USD (BPGaren % 29)
***Per capita* BPG** (2019): 10.099 USD
**BPGaren hazkundea** (2019): % 6,1[4]
**Urteko inflazioa** (2019): % 2,9
**Enplegua** (2019) 780,03M
**Enplegu-tasa** (2019): % 65,17
**Langabezia-tasa** (2019): % 3,8
**Ondasun eta zerbitzuen esportazioak** (2018): USD 2.655,60mM
**Ondasun eta zerbitzuen inportazioak** (2018): USD 2.548,98mM
**Merkataritza** (2018, BPGaren %):% 38

## Beste batzuk

**I+G gastua** (2017, BPGaren %): % 2,15
**Interneten erabiltzaileak** (2017): % 54
**GGI** (2018): 0,758 85/199

*Iturriak: CIA, IMF, The World Bank, DANE, WTO*

---

[1] CIA (2019ko abendua): China World Factbook. https://www.cia.gov/library/publications/resources/the-world-factbook/attachments/summaries/CH-summary.pdf
[2] *Ibid.*
[3] Santander Trade (2020ko apirila): China: Política y economía. Contexto económico. 'Coyuntura económica'. https://santandertrade.com/es/portal/analizar-mercados/china/politica-y-economia
[4] NDF (2020ko apirila): World Economic Outlook Database: China. https://www.imf.org/external/pubs/ft/weo/2020/01/weodata/weorept.aspx?pr.x=76&pr.y=14&sy=2014&ey=2021&scsm=1&ssd=1&sort=country&ds=.&br=1&c=924&s=NGDP_RPCH%2CPPPGDP%2CNGDPRPPPPCPCH%2CPCPIPCH%2CPCPIEPCH%2CLUR%2CGGXCNL_NGDP%2CBCA_NGDPD&grp=0&a=

# 2. BEGIRADA

Azterketa honen bidez, 48 herrialdek Euskadirentzat izan dezaketen interesa, eta, interes horren arabera, BasqueTrade-n aldetik jaso dezaketen babesa aztertzen da. Herrialde horiek 34 eremutan banatu dira. Azterketa honetan, 2. postuan egongo litzateke Txina, 259ko batez bestekoarekin, AEBen atzetik (304,5 puntu). Hortaz, euskal enpresentzat lehentasunezkoak eta interes potentzialekoak har daitezkeen hamar herrialdeen ranking-ean sartuko litzateke Asiako erraldoia.

Hain zuzen, ranking horrek egiten du interesgarri Txina Euskadiren ikuspegitik, bertan ekintzak egiteko eta Eusko Jaurlaritza-BasqueTrade-n babesa jasotzeko. Baina ez da hori Txina interesgarri egiten duen faktore bakarra. Txina irekitze-prozesuan dagoen herrialdea da, eta oso aukera erakargarriak eskaintzen ditu atzerriko negozioak martxan jartzeko. Horrez gainera, Txinak hain merkatu handia izanik, era askotako aukerak eskaintzen ditu. Hala, eskaeraren sofistikazioari esker −Txinako kontsumitzaileen exijentzia maila handitzearen ondorio zuzena da hori−, are handiagoak dira euskal enpresen aukerak. Txinaren kokapen estrategikoak eta herrialdeak ezaugarri duen enpresa-dinamismo handiak, beste faktore batzuen artean, atzerriko inbertitzaileen arreta erakarri dute.

Baina, horrekin batera, kontuan hartu beharrekoak dira, Txinan inbertsioak egiteko orduan, arlo politiko-administratiboan, soziokulturalean eta hizkuntzaren arloan gainditu beharreko oztopoak, bai Euskadiren kanpo-irudia sustatzeko orduan bai inbertitzaile txinatarrak Euskadira erakartzeko orduan. Halaber, Txinan finkatutako euskal enpresen tasa ez da hain adierazgarria, sektore jakinen bat albo batera utzita. Aztertutako 13 klusterretatik hiruk bakarrik dute ekintzak egiteko asmoa.

Hori horrela izanik ere, hainbat euskal enpresek Txinarekiko interesa agertu dute, proiektuak martxan jarriz eta herrialdean finkatuz. Hala, 2019ko ekainean, Jiangsu probintziako gobernadore ohi Guo Yangquiang-ek Euskadi bisitatu zuen, eta Iñigo Urkullu lehendakariarekin eta Marian Elorza Kanpo Ekintzako idazkari nagusiarekin elkartu zen, harreman adiskidetsuei buruzko memorando berria −2012koa ordezkatzen duena− sinatzeko, eta, hala, agerian utzi zuten lotura horiek mantendu eta indartzeko bi aldeek duten interesa[5]. Halaber, Arantxa Tapia merkataritza sailburuak eta Javier Zarraonandia sailburuordeak Jinan-era, Shandong probintziaren hiriburura, bisita egiteko asmoa zuten martxoan, baina ezinezkoa izan zuten bidaia hori egitea, Covid-19aren agerraldiaren ostean.

Eta azkenik, ezin aipatu gabe utzi Covid-19ak sortutako krisia. Txosten hau idazteko unean, esan daiteke Txina jadanik gainditzen ari dela epidemiaren etaparik kritikoena. Mantso bada ere, herrialdea aurreko mailetara itzultzen joango da pixkanaka, eta ziurtzat jotzen da susperraldia, Txinako Estatistiken Bulego Nazionalak iragarritako zifrak eta Nazioarteko Diru Funtsak 2021erako egindako aurreikuspenak kontuan hartuta. Adimen artifiziala, big data, merkataritza elektronikoa eta 5G aplikazioa bultzatzearen eraginez, kontsumo-eredu berriak ari dira sortzen, eta, ondorioz, berehala ase beharreko eta, beraz, enpresek bete beharreko behar berriak ari dira sortzen kontsumitzaileengan.

Zenbait enpresa hornidura-kate globala birplanteatzearen eta beste herrialde batzuetan aukerak dibertsifikatzearen alde egiten ari badira ere, Txina merkatu handia duen potentzia gisa ikusten da oraindik ere; bertan kokatu eta bertara egokitzen direnei etekinak sortzen jarraitzeko gaitasuna duen potentzia bat. Txinak eraldaketa- eta irekitze-prozesuan aurrera egiten jarraitzeko jarrera adierazten du, nabarmen. Hain zuzen, horixe adierazten dute Txinako Herri Asanblada Nazionalak 2020ko maiatzaren 21ean eta 22an eztabaidatutako gai hauek: Txinako Inportazio eta Esportazioen Nazioarteko Azokaren 3. edizioaren data berrestea, AEB eta Txinaren arteko merkataritza-akordioaren lehen fasea aurrera eramateko konpromisoa eta bost urtez behingo XIV. plana egitea.

Hori guztia kontuan izanik, Txinako merkatua euskal enpresentzako merkatu estrategiko gisa ikusten dugu.

[5] Euskadi.eus (2019ko ekaina): "El Lehendakari se reúne con el Vicegobernador de la provincia de Jiangsu". https://www.euskadi.eus/gobierno-vasco/-/noticia/2019/el-lehendakari-se-reune-con-el-vicegobernador-de-la-provincia-de-jiangsu/

# 3. TESTUINGURU SOZIO-POLITIKOA

2017ko urriaren 18tik 24ra PCCk Pekinen egindako XIX. kongresuan, Xi Jinping izendatu zuten berriz ere alderdiko idazkari nagusi eta batzorde militarreko buru, eta Li Keqiang lehen ministro. Halaber, Politburo-ko 25 kideak aukeratu zituzten, eta horietatik, Batzorde Iraunkorreko kide berriak. Kide horietako inork ere ezingo du izan idazkari nagusi kargua 10 urtez, Alderdiak finkaturiko 68 urteren adin-mugaren arau ez-idatzia gainditzen baitute guztiek. Hortaz, Batzorde Iraunkorretik ez da aterako Xi Jinping-en lekukoa hartuko duen hautagaia, hark bere ziklo politikoa 2022an amaitzen duenean. Horrek aukera gehiago ematen dizkio Xi Jinping-i berriz hautatua izateko[6]. Xi Jinping-ek presidente karguan jarraitzea komenigarria izan daiteke euskal enpresentzat, eta, gainera, ziurtasun-aldi luzeagoa berma dezake; izan ere, Xi Jinping boterera iritsi zenetik, kanpo-politika asertiboagoa eraman du aurrera Txinak, eta irekitasun-etapa batean murgildu da herrialdea, merkatu txinatarrean sartzeko eta atzerriko enpresekin negozioak egiteko erraztasunak emanez.

Horren haritik, PCCren XIX. kongresuan hartutako erabaki garrantzitsu bat azpimarratu behar da: Xi Jinping-en filosofia politikoa (“Xi Jinping-en pentsamoldea sozialismoari buruz eta Txinaren aro berriko ezaugarriei buruz”) onartzea eta PCCren konstituzioan txertatzea. Beraz, Mao Zedong eta Deng Xiaoping-en ideien maila lortu zuten Xi Jinping-en ideiek, zeinak “amets txinatarra” erdiestea baitu helburu: herrialde aberats eta indartsua sortu, nazioa gaztetu eta herritarren ongizatea lortu. Horrez gainera, 2016ko martxoan egindako XII. Herri Asanblada Nazionalean onarturiko 2016-20erako bost urteko planean, 2020rako gizarte aberats bat eraikitzeko helburuari eusten zaio, hiru ildo estrategikotan oinarrituta: garapen ekonomikoa gehiago lehenetsi, egiturazko erreformetan sakondu eta hazkunde ekonomikoaren eredu-aldaketa azkartu[7].

Helburu horiek lortzeko, Xi Jinping-ek hainbat aldiz adierazi izan du atzerriko enpresekin lan egiteko eta ekonomia global ireki eta kooperatiboa eraikitzeko asmoa, eta horrek ere aukerak irekitzen dizkio euskal enpresari. Zehazki, 2019ko azaroan, Txinako Inportazioen Nazioarteko Erakusketaren bigarren edizioan, atzerriko inbertsioak Txinako merkatura sartzeko aukera erraztuko zuela iragarri zuen Xi Jinping-ek, enpresen zerrenda negatiboa[8] murriztuz eta ingurune nazioartekotuago bat bultzatuz. Halaber, lege-sisteman hobekuntzak egiteko konpromisoa hartu zuen, jabetza intelektualeko eskubideak babesteko, inportazioak zabaltzeko, beste herrialde batzuekiko superabit komertziala murrizteko eta tarifak txikitzeko, merkatua aurrerantzean irekitzen joan dadin eta globalizazio ekonomikoa bultza dadin[9].

2020ko urtarrilaren 1ean Atzerriko Inbertsioen Legea (FIL, ingelesezko siglen arabera) indarrean sartuz gauzatu da diskurtso hori. 2006az geroztik araudi hori berrikusten den lehen aldia da. Erreforma hori martxan jarriz, berdintasunezko tratamendua eskaintzen zaie atzerriko inbertitzaileei. Hala, 2020ko urtarrilaren 1az geroztik, desagertu egin da lehen indarrean zegoen Atzerriko Inbertsio Enpresen (FIE) lege-egitura. Horren arabera, Atzerriko Jabetzako Enpresak (WFOE) sor zitezkeen Txinan ekoizteko, edo Atzerriko Kapitaleko Enpresa Bateratuak (SJV), Txinako herritarrentzat ekoitzi eta haiei saltzeko. Sistema horren arabera, Txinako enpresa bateko partaide izan nahi zuten atzerriko inbertitzaileek erakunde bateratu gisa berregituratu behar zuten enpresa txinatarra, eta, ondorioz, lausotuta geratzen ziren atzerriko inbertitzaileen eskubideak.

Erreforma berriaren ondoren, desagertu egin dira zailtasun horiek, eta, orain, atzerriko inbertitzaileek partaidetzak eros ditzakete Txinako erakunde pribatuetan, inbertitzaile txinatarrek bezala[10]. Egia da nolabaiteko ezkortasuna dagoela

---

6 ICEX (2020ko apirila): Marco Político de China: ‘Sistema de gobierno, partidos políticos y división de poderes’. https://www.icex.es/icex/es/navegacion-principal/todos-nuestros-servicios/informacion-de-mercados/paises/navegacion-principal/el-pais/informacion-economica-y-comercial/marco-politico/index.html?idPais=CN#0

7 *Ibid.*

8 Atzerriko enpresarientzat debekatuta dauden industria eta sektore ekonomikoen zerrenda.

9 China International Import Export (CIIE) (2019ko azaroa): Bigarren edizioa. https://www.youtube.com/watch?v=dNGhxEFfRgY

10 UNCTAD (2020ko urtarrila): Investment Policy Hub. ‘New Foreign Investment law and its implementation regulations came into effect’. https://investmentpolicy.unctad.org/investment-policy-monitor/measures/3472/new-foreign-investment-law-and-its-implementation-regulations-came-into-effect

erreforma horren helburuari buruz, aldaketa handiak baitaude jurisdikzio batetik bestera, baina ezin da ukatu atzerriko inbertitzaileentzat erraztu egin direla Txinan negozioak egiteko prozedurak. Hala, lehen, urtebete inguruko prozesu korapilatsua bete behar zen Txinan negozio bat martxan jarri ahal izateko; orain, berriz, erabat erraztu da prozesua, eta, aste gutxiren buruan, enpresa bat sor daiteke Txinako hiri gehienetan.

Azkenik, beste faktore batzuek ere eragina izan dute Txinako testuinguru sozial eta politikoan. Lehenik eta behin, 2019ko ekainean hasi ziren gobernuaren aurkako eta demokraziaren aldeko protestak Hong Kong-en. Geroztik, liskar biolentoak izan dira poliziarekin, gobernu txinatarrak Txina kontinentalera estraditatzea ahalbidetzeko proposamen polemikoaren ondoren. Horrez gainera, 2020aren hasieran, urtarrilean, apaldu egin zen 2018an hasitako AEB eta Txinaren arteko tentsioa, bi potentzia handiek hitzarmen komertziala sinatu baitzuten, bien arteko gerra komertziala amaitzeko. Hitzarmen horren arabera, AEBetako ondasun eta zerbitzuen 200.000 USD erosteko konpromisoa hartuko luke Txinak, eta nekazaritza, manufaktura, energia eta zerbitzu arloko erosketak areagotuko lituzke. Hala eta guztiz ere, beste herrialdetik inportatutako ondasunekiko muga-zergak mantenduko dituzte bi herrialdeek[11].

Edonola ere, beste koronabirus-agerraldi bat izanez gero, litekeena da Txinaren erosketa-planak –hitzarmenaren lehenengo fasean adostutakoak– korapilatzea, eta, ondorioz, teknologian, finantzetan eta beste zenbait sektoretan bi aldeen artean dauden tentsioak luzatzea, The Economist egunkariak iragarri duen moduan[12]. Alde horretatik, pandemia izan da herrialdearen testuinguru orokorra gehien itxuraldatu duen faktorea. Inork ere ez daki zer gertatuko den, eta erabateko ziurgabetasuna eta anbiguotasuna sortu du gizartean. Halaber, zaila da zehatz deskribatzen pandemiak alor ekonomikoan izango duen inpaktua. Hala eta guztiz ere, argi dago eragin eztabaidaezina izango duela orain arteko ekonomia txinatarrean, nazioarteko merkataritzaren logikan eta beste potentziekiko harremanetan, txosten honetan zehar agerian geratzen den moduan.

Bukatzeko, Txinako Herri Asanblada Nazionalak 2020ko maiatzaren 21 eta 22an egindako asanblada mugarria izan zen Txinako gobernu-planen historian. 1990az geroztik lehen aldiz, ez zen ezarri urteko hazkunde ekonomikoko helbururik (funtsezko datua izan ohi da bilera horietan), Covid-19aren ondorioz eta epidemia hainbat arlotan izaten ari den eraginari arreta jartzeko asmoz. Helburu ekonomiko bat ez finkatzeak ez du esan nahi per se, egungo zailtasunen aurrean, hazkunde erritmo konstante bat mantentzeari uztea, baizik eta ikuspegi errealistago bat izatea. Hala, Xi Jinping-ek helburu malgu eta egingarriagoak ezarri zituen, eta iragarri zuen hauek izango zirela 2020ko lehentasunak: enplegu egonkorra bermatu, pobrezia desagerrarazteko lan egin, biztanleei gutxieneko bizitza-estandar batzuk eskaini eta gizarte nahiko aberatsa eraiki arlo guztietan.

---

[11] Santander Trade (2020ko apirila): China: Política y economía. El marco político. 'El contexto político actual'. https://santandertrade.com/es/portal/analizar-mercados/china/politica-y-economia

[12] *Ibid.*

# 4. TESTUINGURU MAKROEKONOMIKOA

## 4.1. Abagune ekonomikoa

Txina munduko bigarren ekonomia indartsuena bezala ekarria da. Lehen lekuan dago herrialde esportatzaile gisa, eta munduko kanbio-erreserba handienak ditu. "Brics" delakoekin batera, munduko BPG hazkunde-tasarik azkarrenetakoa izatea du ezaugarri. Eskulanaren kostu baxuagatik munduko hainbat enpresek beren manufaktura-unitateak Txinara eramatearekin lotu izan da hazkunde hori. Hala eta guztiz ere, 2019an, moteldu egin zen hazkunde ekonomikoa. Hala, % 6,1eko tasara iritsi zen epidemiaren aurretik, eta 2020 eta 2021ean nahiko egonkor mantentzea aurreikusten zen, moteltze globalaren eraginez[13]. 2019aren amaieran, inflazio-tasa % 2,9koa zen, eta zor publikoak Txinako ekonomia mehatxatzen zuen faktore izaten jarraitzen zuen. 2019ko zifra ofizialak % 55,6ra iristen ziren. Txina Parisko Klubeko partaide izan ez arren, nazioarteko mailegu-emaile rola bereganatzen hasi da, bereziki, herrialde afrikarretan. Bestalde, Txinako gobernuaren aurrekontu-defizita % 6,1ekoa izan zen 2019an. Adierazle horiek izango duten bilakaerari dagokionez, aukera ekonomikoei buruzko 4.5 atalean azaltzen da egungo pandemiak zer eragin izan duen Txinako ekonomiaren proiekzioetan.

Covid-19az gain, Txinak beste hainbat erronka ditu aurrean: pobreziaren maila asko murriztu arren (duela 5 urte 100.000 txinatar bizi ziren eguneko 1 USD baino gutxiagorekin[14], eta, egun, 43 milioi inguru dira), oraindik ez dira desagertu herrialdearen egitura ekonomiko orokorrean eragina duten erronka batzuk: herritarren zahartzea, lan-indarra murriztea, sistema politikoaren irekitzea eta kapital-gastuaren eta kreditu-hedapenaren mendeko ekonomia baten lehiakortasun-arazoak. Halaber, ez da desagertu Txinaren kostaldeko hiri-eremuen eta barnealdeko landa-eremuen eta klase ertainaren eta hazkundeari etekinik atera ezin izan dien herritarren arteko arrakala, eta arazo horiek kezka eragiten dute Txinako agintarien eta inbertitzaileen artean[15].

1. taula: Hazkunde-adierazleak[16][17]

| HAZKUNDE EKONOMIKOAREN ADIERAZLEAK | 2017 | 2018 | 2019 | 2020 (e) | | 2021 (e) | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | | COVID-19aren aurretik | COVID-19aren ondoren | Pre COVID-19 | Post COVID-19 |
| BPG (mila milioi USD) | 12.962 | 13.368 | 14.140 | 15.270 | n/a | 16.570 | n/a |
| BPG (urteko hazkundearen %, prezio konstantea) | 6,8 | 6,6 | 6,1 | 5,8 | 1,2 | 5,9 | 9,2 |
| Per capita BPG (USD) | 8.677 | 9.580 | 10.099 | 10.873 | n/a | 11.773 | n/a |
| Inflazio-tasa (%) | 1,6 | 2,1 | 2,9 | 2,4 | 3 | 2,8 | 2,6 |

*Iturria:* FMI, World Economic Outlook Database, 2020ko apirila

[13] Santander Trade (2020ko apirila): China: Política y economía. Contexto económico. 'Coyuntura económica'. https://santandertrade.com/es/portal/analizar-mercados/china/politica-y-economia
[14] Gobernuak ezarritako pobreziaren lerroa.
[15] Santander Trade (2020ko apirila): China: Política y economía. Contexto económico. 'Coyuntura económica'. https://santandertrade.com/es/portal/analizar-mercados/china/politica-y-economia
[16] NDF (2019ko urria): World Economic Outlook Database. Global Manufacturing Downturn, Rising Trade Barriers. https://www.imf.org/en/Publications/WEO/Issues/2019/10/01/world-economic-outlook-october-2019
[17] NDF (2020ko apirila): World Economic Outlook Database. The Great Lockdown. https://www.imf.org/en/Publications/WEO/Issues/2020/04/14/weo-april-2020

## 4.2. Balantza komertziala

Kanpo-ekonomia hil ala bizikoa bihurtu da Txinako ekonomiarentzat. Hain zuzen, BPGaren % 38,2a ordezkatzen du, eta ekonomia modernizatzeko elementu garrantzitsu gisa erabili da. Merkataritzaren Mundu Erakundearen arabera, 2018an, 2.486.700 M USD hazi ziren esportazioak eta 2.135.700 M USD inportazioak. 2018ko zerbitzuen esportazioak, berriz, 265.000 M USD izan ziren eta inportazioak 520.600 M USD. Datu horiek erakusten dute Txinaren esportazioak % 19,5 hazi zirela, eta inportazioak % 18,7[18].

Txinako ondasunen saldo komertzialak 395.200 M USDko superabita izan zuen 2018an. 2016koa baino txikiagoa da zifra hori (475.900 M USD). Azken urteetan soberakin komertziala izan du Txinak, eta horri esker, munduko esportatzaile handiena eta munduko bigarren inportatzailea bihurtu da[19]. Ezin da ukatu politika zorrotzak dituenik, baina 3. atalean esan bezala (testuinguru soziopolitikoa), irekitasun handia agertzen ari da kanpo-merkataritzarekiko. Merkataritza-balantza orokorra –zerbitzuak barne– 103.000 M USDkoa izan zen[20].

**2. taula: Kanpo-merkataritzaren adierazleak, 2014-2018**

| KANPO-MERKATARITZAKO ADIERAZLEAK | 2014 | 2015 | 2016 | 2017 | 2018 |
|---|---|---|---|---|---|
| Ondasunen inportazioa (milioi USD) | 1.959.233 | 1.681.951 | 1.587.431 | 1.843.793 | 2.135.748 |
| Ondasunen esportazioa (milioi USD) | 2.342.293 | 2.274.949 | 2.098.161 | 2.263.345 | 2.486.695 |
| Zerbitzuen inportazioa (milioi USD) | 450.805 | 466.330 | 453.014 | 464.133 | 520.569 |
| Zerbitzuen esportazioa (milioi USD) | 279.423 | 285.476 | 208.488 | 226.389 | 265.088 |
| Ondasun eta zerbitzuen inportazioa (BPGren %) | 21.5 | 18,2 | 17,5 | 18,2 | 18,7 |
| Ondasun eta zerbitzuen esportazioa (BPGren %) | 23,6 | 21,4 | 19,8 | 20,0 | 19,5 |
| Balantza komertziala (milioi USD) | 435.042 | 576.191 | 488.883 | 475.941 | 395.171 |
| Balantza komertziala (zerbitzuak barne) (milioi USD) | 221.299 | 357.871 | 255.737 | 217.010 | 102.921 |
| Kanpo-merkataritza (BPGren %) | 45,1 | 39,6 | 37,2 | 38,1 | 38,2 |

*Iturria:* Merkataritzaren Mundu Erakundea eta Munduko Bankua, 2020ko martxoa

## 4.3. Atzerriko inbertsioa

UNCTADek urtero argitaratutako txostenaren arabera, garapenean dauden ekonomiekiko atzerriko inbertsio zuzeneko (AIZ) fluxuak egonkor mantendu dira azken bi urteetan. Hain zuzen, %2ko hazkundea izan dute, eta 706.000M USDra iritsi dira. Herrialde garatuetako atzerriko inbertsioak bat-bateko beherakada izan ostean, hazi egin da garapenean dauden herrialdeek AIZn duten parte hartzea. Hala, % 54 zifra errekorrera iritsi dira inbertsio horiek[21]. Zehazki, % 4 hazi ziren herrialde asiarretako AIZ sarrerak 2018an, eta 512.000M USDko kopurura iritsi ziren. Bereziki, Txinan, Hong Kongen, Singapurren, Indonesian eta ASEAN erakundeko kide diren beste herrialde batzuetan erregistratu da hazkunde hori. Hala, ASEAN erakundeak hartzen duen eremua da munduko AIZ hartzailerik handiena; hain zuzen, mundu osoan egiten diren atzerriko inbertsioen % 39 jasotzen dute[22].

Testuinguru horretan, Txinak inbertsio aukera handia eskaintzen dio euskal enpresari, Txina baita munduko barne-merkatu handiena duen herrialdea (1.300 milioi kontsumitzaile potentzial baino gehiago). Horren erakusgarri, Txinako

---

18 Santander Trade (2020ko apirila): Cifras del Comercio Exterior en China. https://santandertrade.com/es/portal/analizar-mercados/china/cifras-comercio-exterior

19 *Ibid.*

20 *Ibid.*

21 UNCTAD (2019ko uztaila): Munduko inbertsioei buruzko txostena (2019). 'Las zonas económicas especiales'. 2. or. https://unctad.org/es/PublicationsLibrary/wir2019_overview_es.pdf

22 *Ibid.* 11. or. https://unctad.org/es/PublicationsLibrary/wir2019_overview_es.pdf

sarrerak % 4 hazi ziren 2018an, eta bigarren lekuan dago munduko AIZ hartzaile handienen zerrendan. Hala, 134.000M USDko sarrerak izan zituen 2017an, eta 139.000 M USDkoak 2018an. Txinaren ondoren, Hong Kong eta Singapur dira AIZ hartzaile nagusiak. Besteak beste, sektore hauetara bideratu ziren inbertsioak: manufaktura, konputazio-zerbitzuak, sustrai ondasunak, leasing negozioak eta zerbitzuak, handizkako eta txikizkako merkataritza, finantza-bitartekaritza, ikerketa zientifikoa, garraioa, elektrizitatea eta eraikuntza. Horrez gainera, 2018an, atzerriko inbertitzaileek 60.000 enpresa baino gehiago ezarri zituzten Txinan (% 70eko hazkundea 2017arekiko). Fusio- eta erosketa-akordio garrantzitsuei esker, inbertsio-fluxuak bereganatzen jarraitzen du Txinak. Herrialdeak atzerriko enpresen proiektuak hartzeko duen jarrera ona adierazten du horrek, eta hori mesedegarria da EAEko enpresentzat[23].

Bestalde, garapenean dauden Asiako herrialdeen irteerak (munduko AIZ irteeren % 40 ordezkatzen dute) % 3 murriztu ziren (401.000M USDra). Kapitalen irteerarako pizgarri-politikarik ezaren ondorioz, murriztu egin dira Txinaren inbertsioak, eta, halaber, hazi egin da Europan eta AEBn sartzen diren inbertsioen kontrola, eta horren ondorio zuzena da murrizketa hori[24]. Txinako enpresa multinazionalen inbertsioak murriztu egin ziren bigarren urtez jarraian. Hala, Txinaren AIZ irteerek 158.000 M USDko beherakada izan zuten 2017an, eta 130.000 M USDkoa 2018an. Hala eta guztiz ere, Txinako enpresa multinazionalak inbertsio-iturri geroz eta aktiboagotzat hartzen dira, eta presente daude kostalderik ez duten eta garapen bidean dauden ia herrialde guztietan[25].

3. taula: Txinaren kanpo-inbertsioen adierazleak, 2016-2018

| KANPO-INBERTSIOEN ADIERAZLEAK | 2016 | 2017 | 2018 |
|---|---|---|---|
| AIZ (milioi USD) | 133.710 | 134.063 | 139.043 |
| AIZ stock-a (milioi USD) | 1.354.613 | 1.488.676 | 1.627.719 |
| *Greenfield* inbertsioen kopurua | 798 | 751 | 871 |
| Sartzen den AIZ (guztizko inbertsioaren %) | 2,8 | n/a | n/a |
| AIZ stock-a (BPGaren %) | 12,1 | n/a | n/a |

*Iturria:* UNCTAD azken datu eskuragarriak

## 4.4. Enplegua

Epidemiaren aurretik, azken urte honetan, azken bi urteetakoaren antzeko langabezia-tasa erregistratu zen Txinako lan-merkatuan (% 3,8), eta gobernuaren urteko helburuaren azpitik zegoen (% 4,5)[26]. Giza Baliabideen eta Gizarte Segurantzaren Ministerioak konferentzia batean iragarri zuenez, hirietan 13,52 milioi enplegu berri sortu ziren 2019an, 11 milioiko helburua gaindituta. Hauek dira Txinako lan-merkatuak ezaugarri duen egonkortasunaren arrazoiak: enplegua eta hazkunde ekonomikoa lehenesten duten politikak, enplegu aukera berriak sortu dituen industria-egitura optimizatua eta ekonomia digitalaren, merkataritza elektronikoaren eta ekintzailetzaren garapena. Halere, nolabaiteko mesfidantza ere badago adierazle horrekiko; izan ere, hiri-eremuetan kontzentratutako enplegua bakarrik hartzen du kontuan, eta ez ditu kontuan hartzen urtez urte herrialdera iristen diren milioika langile atzerritarrak.

[23]Santander Trade (2020ko apirila): China: Inversión Extranjera. 'Las IED en cifras'. https://santandertrade.com/es/portal/establecerse-extranjero/china/inversion-extranjera

[24] UNCTAD (2019ko uztaila): Munduko inbertsioei buruzko txostena (2019). 'Las zonas económicas especiales'. 12. or. https://unctad.org/es/PublicationsLibrary/wir2019_overview_es.pdf

[25] *Ibid.* 16. or. https://unctad.org/es/PublicationsLibrary/wir2019_overview_es.pdf

[26] Munduko Bankua (2019): Desempleo total (% de la población activa total) (estimación modelado OIT)-China. https://datos.bancomundial.org/indicador/SL.UEM.TOTL.ZS?locations=CN

4. taula: Lanaren adierazleak, 2019

| LANAREN ADIERAZLEAK | 2019 |
|---|---|
| Enplegua guztira (%) | 65,17 |
| ENPLEGUA SEKTOREKA | |
| Lehen sektorea (%) | 26,57 |
| Industria (%) | 28,26 |
| Zerbitzuak (%) | 45,17 |
| Langabezia-tasa (%) | 3,8 |

*Iturria:* Munduko Bankua eta Nazioarteko Diru Funtsa, 2020ko martxoa

2020an, Txinako lan-merkatuak orain arteko joerarekin jarraitzea eta % 4,5aren azpitik mantentzea espero zen. Halere, Covid-19ak eragindako krisiaren eraginez, langabezia-tasa asko haziko dela dirudi, eta, ondorioz, gobernu txinatarrak zailtasunak izango ditu 2020an muturreko pobrezia desagerrarazteko egindako promesa betetzeko. Izan ere, milioika lagunek ez dute jaso ahal izango zehazturiko pobrezia-mugatik urruntzen lagunduko dien errentarik[27]. Apirileko langabezia-tasa % 6koa izan zen, Txinako Estatistiken Bulego Nazionalaren arabera, eta 3,7 milioi enplegu galdu ziren hiri-eremuetan, datu ofizialen arabera (dena den, urtarrilaz geroztik, 20 milioi lagunek lana galdu dutela kalkulatzen da). Zifra horiek kontuan izanik, joan den hilaren 21 eta 22an, Txinako Herri Asanblada Nazionalak berretsi zuen enplegua dela lehentasun nagusia, eta 9 milioi lanpostu sortzeko helburua ezarri zuen.

## 4.5. Aukera ekonomikoak

Pandemiak aldaketak eragin ditu Txinako, NDFko nahiz beste erakunde batzuetako agintarien aurreikuspenetan. Covid-19aren agerraldiaz geroztik, Txinako BPGak % 6,8ko urte arteko beherakada izan zuen lehen hiruhilekoan, eta % 9,8koa aurreko hiruhilekoarekiko[28]. Izan ere, sektore berriak (besteak beste, merkataritza elektronikoa eta finantza-zerbitzuak) ekonomia txinatarrean aurrera egiten ari baziren ere, turismoa eta kontsumoa dira oraindik ere Txinako hazkunde ekonomikoaren bultzatzaile nagusiak, eta sektore horiek jipoi handia jaso dute.

Birusaren eraginez, beherakada handia izan da hazkunde-erritmoan. Hala, agerian jarri ditu nagusiki esportazioetan oinarrituriko hazkundeak dituen mugak, eta hornidura-katea birplanteatzeko beharra. Covid-19aren agerraldiaz geroztik, eta agerraldiak zenbat iraun duen kontuan izanik, NDFk kalkulatzen du herrialdeko BPGaren hazkunde ekonomiko erreala % 1,2ra murriztuko dela, eta 2021ean, berriz, gorakada handia izango duela (% 9,2koa). Hala, ziurrenik, atzeraldirik izango ez duen eta aurten hazkunde mantsoari eutsiko dion herrialde bakanetako bat izango da Txina[29]. Halaber, pandemia Txinan sortu zenez, pandemia gainditzen hasi den lehenengo herrialdea izaten ari da[30].

Inflazio-tasari dagokionez, % 2,9an zegoen (% 3ko helburu ofizialaren azpitik), eta pandemiaren aurretik, hurrengo urteetan tasa hori egonkor mantentzea aurreikusten zen (% 2,4 eta % 2,8 artean)[31]. Pandemiaren ondoren, berriz, % 5,2koa izan zen inflazioa otsailean, % 4,3ra jaitsi zen martxoan, eta % 3,3koa izan zen apirilean. 2020rako % 3ko inflazioa

---

[27] Santander Trade (2020ko apirila): China: Política y economía. Contexto económico. ‘Coyuntura económica’. https://santandertrade.com/es/portal/analizar-mercados/china/politica-y-economia

[28] National Bureau of Statistics of China (NBS) (2020ko apirila): Preliminary Accounting Results of GDP for the First Quarter of 2020. http://www.stats.gov.cn/english/PressRelease/202004/t20200420_1739811.html

[29] NDF (2020ko apirila): Munduko ekonomiaren azken hazkunde-proiekzioak. https://www.imf.org/es/Publications/WEO/Issues/2020/04/14/weo-april-2020

[30] NDF (2020ko apirila): Transcript of April 2020 Asia and Pacific Press Briefing. https://www.imf.org/en/News/Articles/2020/04/16/tr041520-transcript-of-april-2020-asia-and-pacific-department-press-briefing

[31] Santander Trade (2020ko apirila): China: Política y economía. Contexto económico. ‘Coyuntura económica’. https://santandertrade.com/es/portal/analizar-mercados/china/politica-y-economia

aurreikusten da, eta 2021erako % 2,6koa[32]. Maiatzaren 21 eta 22ean egindako gobernu-bileren ostean, % 3,5eko helburua ezarri zen 2020rako, 5 urtez jarraian % 3an finkatu ostean.

1. grafikoa: Txinaren aukera ekonomikoak Covid-19aren ondoren, 2018-2021




*Iturria:* World Economic Outlook Update, 2020ko urtarrila

Bestalde, zor publikoa % 55,6koa da, lehenago aipatu den moduan. Hala eta guztiz ere, kopuru erreala dezente handiagoa dela uste da, eta hurrengo urteetan hazi egingo dela espero da. NDFren arabera, Txinaren zor publikoa hazi egingo da etorkizunean; hala, % 60,9ra irits daiteke 2020an, eta % 65,4ra 2021ean[33].

Amaitzeko, Txinako gobernuaren aurrekontuari dagokionez, 2020 eta 2021ean, % 6,1eko aurrekontu-defizita mantenduko litzateke. Txinak dituen kanbio-erreserba handiei esker (3.000 M USDko balioa dutela kalkulatzen da), Txinaren ekonomiak kanpoko hegazkortasun subiranoa geldiarazteko aukera izan dezake. Horrez gainera, kontuan izan behar da Txinaren kontu korrontea, 148.000M USDra iristen dela[34]. Baina epidemiaren ondoren, joan den maiatzaren 21 eta 22an gobernuaren lanari buruz egindako txostenean, Xi Jinping-ek iragarri zuen 1.000MM CNY (140.000 M USD) haziko dela kontu korrontea, 9 milioi lanpostu baino gehiago sortzeko helburua bete ahal izateko. Beraz, defizit publikoaren helburuak % 3a gaindituko du lehen aldiz, eta % 3,6an finkatuko da, Covid-19aren eragina leuntzeko eta sustapen ekonomikorako neurriak aktibatu ahal izateko.

[32] NDF (2019ko apirila): Txinako Herri Errepublikaren datuak. https://www.imf.org/en/Countries/CHN#data

[33] Santander Trade (2020ko apirila): China: Política y economía. Contexto económico. 'Coyuntura económica'. https://santandertrade.com/es/portal/analizar-mercados/china/politica-y-economia

[34] *Ibid.*

# 5. KANPO-MERKATARITZA

2018an, salgaien kanpo-merkataritzaren bolumena 4.623.000M USD hazi zen, eta, beraz, urte arteko % 12,6ko hazkundea izan zuen. Merkataritza askeko eremuak ezarriz 2013an kanpo-merkataritza bultzatzeko martxan jarritako ekimenak aurrera darrai, eta, 2020tik aurrera, Hainan irlan horrelako beste eremu bat sortuko duela iragarri du gobernu txinatarrak[35]. Horrez gainera, merkataritzaren pixkanakako zabaltze-prozesuan dago murgilduta Txina; hala, 2018an, % 34,6ra iritsi zen (X+M/BPG)[36].

2020rako aurreikusitako zifrak baikorrak ziren arren, pandemiak eragin handia izan du Txinaren kanpo-merkataritzan. Txinako Aduanen Administrazio Orokorraren arabera, lehenengo lauhilekoan, inportazio eta esportazioen balioa % 4,9 murriztu zen; esportazioen urte arteko jaitsiera % 6,4koa izan zen eta inportazioena % 3,2[37]. Merkataritzako superabita, berriz, % 30,4 murriztu zen, eta 58.400M USDn kokatu da. Zehazki, urtarrilean eta otsailean, Txinak merkataritza-saldo defizitarioa izan zuen (34.380M USD eta 34.380M USD, hurrenez hurren). Martxoan, berriz, 19.900M USDko superabita izan zuen, baina iazko hilabete berdinean erregistratutakoa baino txikiagoa (31.500M USD). Apirilean, merkatuaren espektatibak bestelakoak izan arren, esportazioak hazi egin ziren lehen aldiz pandemiak iraun duen lau hilabeteetan (% 8,2), eta inportazioek beherakada handia izan zuten (% 10,2). Ondorioz, hil honetan, gora egin du saldo komertzialak, eta 45.300M USDko kopuruan kokatu da[38].

2. grafikoa: Q1 2019 eta Q2 2020 balantza komertzialen alderaketa (milioi dolarretan)




*Iturria:* Aduanen Administrazio Orokorra, azken datu eskuragarriak

Segidan, Txinaren kanpo-merkataritzako jatorrizko eta helmugako herrialde nagusiak adierazten dira.

---

[35] ICEX (2020ko apirila): China: Sector Exterior. Zonas de libre comercio en China: Tianjin, Fujian, Guangdong, Liaoning, Shanxi, Henan, Hubei, Chongqing, Sichuan y Zhejiang. https://www.icex.es/icex/es/navegacion-principal/todos-nuestros-servicios/informacion-de-mercados/paises/navegacion-principal/el-pais/informacion-economica-y-comercial/sector-exterior/index.html?idPais=CN#0

[36] *Ibid.*

[37] Trading economics (2020ko apirila): China: Exports and Imports. https://tradingeconomics.com/china/exports

[38] Trading economics (2020ko apirila): China: Economic Indicators. https://tradingeconomics.com/china/balance-of-trade

### 3. grafikoa: Txinaren bezero diren herrialde nagusiak, 2018




*Iturria:* COMTRADE, azken datu eskuragarriak

Txinak gehien esportatzen duen herrialdeen mundu mailako ranking horretan, 24. lekuan dago Espainia (% 1,0ko kuota du). Txinak gehien esportatzen duen Europako herrialdeen artean, berriz, 6. lekuan dago Espainia. Urtean 25.058M USDko bolumena esportatzen du, COMTRADEk 2018an emandako azken datuen arabera.

### 4. grafikoa: Txinaren hornitzaile diren herrialde nagusiak, 2018




*Iturria:* COMTRADE, azken datu eskuragarriak

Txinaren hornitzaile diren herrialde nagusien mundu mailako ranking-ean, 38. lekuan zegoen Espainia 2018an (% 0,45eko kuota); hain zuzen, aurreko urtean baino postu bat beherago.

Taula honetan, 2018an Txinak esportatutako produktu nagusiak agertzen dira.

### 5. taula: Txinak esportatutako produktu nagusiak, 2018

| PRODUKTUA | MILIOI DOLAR | % |
|---|---|---|
| ESPORTATUTAKOA GUZTIRA | 2.486.695 | 100 |
| 85 Makina eta gailu elektrikoak | 664.425 | 26,7 |
| 84 Ekipamendu-ondasun mekanikoak | 429.953 | 17,3 |
| 94 Altzariak | 96.416 | 3,8 |
| 39 Materia plastikoak eta horien manufakturak | 80.135 | 3,2 |
| 87 Automobilak | 75.094 | 3 |
| 61 Puntuzko jantzi eta jantzi-osagarriak | 73.525 | 2,9 |
| 62 Puntuzkoak ez diren jantzi eta jantzi-osagarriak | 71.448 | 2,8 |
| 90 Optikako, argazkigintzako eta zinemako tresna eta gailuak eta gailu medikoak | 71.444 | 2,8 |
| 73 Burdin edo altzairu galdaketako manufakturak | 65.558 | 2,6 |
| 29 Produktu kimiko organikoak | 59.795 | 2,4 |
| 95 Aisialdiko eta kiroletako jolas eta gauzak | 56.731 | 2,3 |
| 72 Galdaketa (burdina eta altzairua) | 49.917 | 2 |
| 64 Oinetakoak | 47.135 | 1,8 |
| 27 Erregai mineralak, olio mineralak eta horiek destilatuz lortzen diren produktuak | 46.630 | 1,8 |
| 42 Larruzko manufakturak | 29.704 | 1,2 |

*Iturria:* COMTRADE, azken datu eskuragarriak

Taula honetan, 2018an Txinak inportatutako produktu nagusiak agertzen dira.

6. taula: Txinak inportatutako produktu nagusiak, 2018

| PRODUKTUA | MILIOI DOLAR | % |
|---|---|---|
| INPORTATUTAKOA GUZTIRA | 2.135.748 | 100 |
| 85 Makina eta gailu elektrikoak | 521.542 | 24,4 |
| 27 Erregai mineralak, olio mineralak eta horiek destilatuz lortzen diren produktuak | 347.782 | 16,2 |
| 84 Ekipamendu-ondasun mekanikoak | 202.317 | 9,4 |
| 26 Mineralak, zepak eta errautsak | 135.914 | 6,3 |
| 90 Optikako, argazkigintzako eta zinemako tresna eta gailuak eta gailu medikoak | 102.526 | 4,8 |
| 87 Automobilak | 81.492 | 3,8 |
| 39 Materia plastikoak eta horien manufakturak | 74.867 | 3,5 |
| 29 Produktu kimiko organikoak | 67.391 | 3,2 |
| 71 Perlak, harriak, metal preziatuak eta horien manufakturak | 61.954 | 2,9 |
| 74 Kobrea eta kobrezko manufakturak | 47.646 | 2,2 |
| 12 Haziak eta fruitu oleaginosoak | 43.371 | 2 |
| 88 Aireko edo espazioko nabigazioa | 30.683 | 1,4 |
| 99 Sailkatu gabeko produktuak | 29.854 | 1,3 |
| 30 Farmazia-produktuak | 27.900 | 1,3 |
| 44 Zura eta bere manufakturak | 24.914 | 1,1 |

*Iturria:* COMTRADE, azken datu eskuragarriak

Zehazki, hauek dira Txinak gehien esportatzen dituen produktuak: irrati-telefoniarako transmisio-gailuak (% 7,9), datuen prozesamendurako makina eta unitate automatikoak (% 7), zirkuitu integratu elektronikoak eta mikro mihiztadurak (% 3,4), lineako telefoniarako aparatu elektrikoak (% 2,2) eta makina eta ibilgailuetarako ordezkoak eta osagarriak (% 2,9). Bestalde, hauek dira Txinak gehien inportatzen dituen produktuak: zirkuitu integratu elektronikoak eta mikroegiturak (% 14,2), petrolio-olioak (% 11,2), burdin-mineralak (% 3,5), petrolio-gasa (% 2,3) eta ibilgailu automotorrak (% 2,3)[39].

Txinaren inportazioen irudi orokorragoa izateko, kategoria ekonomiko handien arabera aztertzen dira inportazioak. 2018an, hauek izan dira Txinak gehien inportatutako produktuak: hornidura industrialak, kapital-ondasunak, erregaiak eta lubrifikatzaileak, garraio-ekipoak, elikagai eta edariak eta kontsumo-ondasunak.

Segidan, 2018an kategoria bakoitzean inportatutako bolumena adierazten da.

[39] Santander Trade (2020ko apirila): Cifras del Comercio Exterior en China. 'Principales productos'. https://santandertrade.com/es/portal/analizar-mercados/china/cifras-comercio-exterior

7. taula: 2018an Txinak inportatutako produktu nagusiak, kategoria handien arabera (BEC)

| PRODUKTUA | MILIOI DOLAR |
|---|---|
| GUZTIRA | 2.135.748 |
| 2 BESTE PARTIDA BATEAN ZEHAZTU GABEKO HORNIDURA INDUSTRIALAK | 974.171 |
| 22 Beste partida batean zehaztu gabeko hornidura industrialak, landuak | 782.120 |
| 21 Beste partida batean zehaztu gabeko hornidura industrialak, oinarrizkoak | 192.051 |
| 4 KAPITAL-ONDASUNAK (GARRAIO-EKIPOAK IZAN EZIK) ETA HORIEN ZATIAK ETA OSAGARRIAK | 469.820 |
| 41 Kapital-ondasunak (garraio-ekipoak izan ezik) | 260.397 |
| 42 Kapital-ondasunen piezak eta osagarriak (garraio-ekipoak izan ezik) eta horien piezak eta osagarriak | 209.423 |
| 3 ERREGAIAK ETA LUBRIFIKATZAILEAK | 336.373 |
| 31 Erregaiak eta lubrifikatzaileak, oinarrizkoak | 275.435 |
| 32 Erregaiak eta lubrifikatzaileak, landuak | 60.938 |
| 1 ELIKAGAI ETA EDARIAK | 114.314 |
| 11 Elikagaiak eta edariak, oinarrizkoak | 58.877 |
| 5 GARRAIO-EKIPOAK, HORIEN ZATIAK ETA OSAGARRIAK | 137.253 |
| 53 Garraio-ekipoen piezak eta osagarriak | 57.201 |
| 6 BESTE PARTIDA BATEAN ZEHAZTU GABEKO KONTSUMO-ONDASUNAK | 72.842 |
| 7 BESTE PARTIDA BATEAN ZEHAZTU GABEKO KONTSUMO-ONDASUNAK | 55.723 |

*Iturria:* COMTRADE, BEC Classification by Broad Economic Categories

Euskal enpresak Txinan nola barneratu diren modu zehatzagoan aztertu ahal izateko, Europako herrialdeetatik Txinara egindako inportazioak aztertuko ditugu, kategoria ekonomiko handietan banatuta.

8. taula: Txinak Europako herrialde nagusietatik egindako inportazioak, 2018

| | GUZTIRA | ALEMANIA | SUITZA | FRANTZIA | ERRESUMA BATUA | ITALIA | IRLANDA | SUEDIA | ESPAINIA |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| GUZTIRA (MILIOI USD) | 254.781 | 106.476 | 41.922 | 32.457 | 23.979 | 21.172 | 10.889 | 8.951 | 8.936 |
| 4 KAPITAL-ONDASUNAK | 69.900 | 43.537 | 4.566 | 5.290 | 4.347 | 6.962 | 1.365 | 2.605 | 1.228 |
| 5 GARRAIO-EKIPOAK | 55.510 | 30.343 | 1.605 | 11.480 | 7.610 | 1.707 | 9 | 1.849 | 907 |
| 2 INDUSTRIA-HORNIDURAK | 73.138 | 22.707 | 20.690 | 5.692 | 4.599 | 5.172 | 7.367 | 2.841 | 4.071 |
| 6 KONTSUMO-ONDASUNAK | 28.689 | 6.811 | 3.638 | 5.745 | 2.054 | 6.653 | 1.088 | 1.532 | 1.168 |
| 1 ELIKAGAI ETA EDARIAK | 11.205 | 2.027 | 1.968 | 3.674 | 637 | 551 | 1.028 | 95 | 1.225 |
| 3 ERREGAIAK ETA LUBRIFIKATZAILEAK | 5.782 | 682 | 21 | 398 | 4.451 | 53 | 0,18 | 12 | 165 |
| 7 BESTE ONDASUN BATZUK | 10.557 | 369 | 9.434 | 178 | 281 | 74 | 32 | 17 | 172 |

*Iturria:* COMTRADE, BEC Classification by Broad Economic Categories

Ikusten denez, Txinak Espainian duen interes nagusia industria-hornidurak dira (Txinak Espainiatik egindako inportazioen % 45a), eta, horien ondotik, kapital-ondasunak (% 13,7). Adierazle garrantzitsua izan daiteke hori euskal enpresek bultza ditzaketen sektoreak zehazteko orduan.

# 6. ALDEBIKO HARREMANAK

## 6.1. Euskadi eta Txinaren arteko merkataritza

2019an, Txina 10. postuan zegoen Euskadik egindako esportazioen ranking-ean[40] (urte horretan, 496M euroko esportazioak egin ziren, guztira). Bestalde, Asiako erraldoia 3. postuan dago Euskadiren herrialde hornitzaile nagusien zerrendan[41] (1.336M euroko inportazioak guztira). Taula honetan, Euskadik Txinarekin duen kanpo-merkataritza adierazten da, milaka eurotan.

**9. taula: Euskadi-Txina merkataritza, 2014-2019**

| | 2014 | 2015 | 2016 | 2017 | 2018 | 2019 (p) |
|---|---|---|---|---|---|---|
| Esportazioak (milaka euro) | 637.138 | 442.634 | 526.332 | 538.628 | 470.462 | 496.644 |
| Inportazioak (milaka euro) | 938.595 | 1.173.413 | 1.042.698 | 1.047.798 | 1.151.798 | 1.336.432 |
| Balantza komertziala (milaka euro) | -301.475 | -730.779 | -516.366 | -94.422 | -509.170 | -839.788 |

Iturria: EUSTAT

Ikusten den moduan, Euskadi eta Txinaren arteko balantza komertziala defizitarioa izan da beti Euskadirentzat.

**5. grafikoa: Euskadi-Txina merkataritzaren bilakaera, 2000-2019**




*Iturria:* EUSTAT

Covid-19aren ondoren, eta ECOMEXen azken prentsa-oharra kontuan hartuta, 2020ko otsailean, Euskadiren esportazioak % 7,9 murriztu ziren guztira, eta inportazioak % 13,6, aurreko urtearekin alderatuta (1.549,8M EURO). Hala, Euskadiren saldo komertziala (352,5M EURO) 80,6 M aldiz handiagoa izan zen 2019ko otsailean erregistratutakoa baino[42]. Txinarako esportazioek ere joera bera mantendu zuten, eta % 7,8 murriztu ziren.

---

[40] EUSTAT (2020ko otsaila): Kanpo-merkataritzako estatistika (ECOMEX). Euskal Autonomia Erkidegoko esportazioen rankinga herrialdeka. 2019. https://www.eustat.eus/elementos/ele0005700/Ranking_de_las_exportaciones_de_la_CA_de_Euskadi_por_paises_p/tbl0005722_c.html

[41] EUSTAT (2020ko otsaila): Kanpo-merkataritzako estatistika (ECOMEX). Euskal Autonomia Erkidegoko inportazioen rankinga herrialdeka. 2019. https://www.eustat.eus/elementos/ele0005700/Ranking_de_las_importaciones_de_la_CA_de_Euskadi_por_paises_p/tbl0005723_c.html

[42] EUSTAT (2020ko apirila): 2020/04/21eko prentsa-oharra. 'En febrero de 2020 las exportaciones de la CA de Euskadi bajan un 7,9% y las importaciones un 13,6%'. https://www.eustat.eus/elementos/En_febrero_de_2020_las_exportaciones_de_la_CA_de_Euskadi_bajan_un_79_y_las_importaciones_un_136_/not0017291_c.html

Taula honetan, Euskadi eta Txinaren artean esportatu eta inportatutako produktu nagusiak agertzen dira.

### 10. taula: Euskadik Txinara esportatutako produktu nagusiak, 2018

| PRODUKTUA | 2018 | % |
|---|---|---|
| **GUZTIRA (milaka euro)** | **470.462** | **% 100** |
| 84 Ekipamendu-ondasun mekanikoak | 191.582 | 40,7 |
| 73 Galdaketako manufakturak | 55.840 | 11,8 |
| 85 Makina eta gailu elektrikoak | 54.013 | 11,4 |
| 74 Kobrea eta bere manufakturak | 29.099 | 6,1 |
| 87 Automobilak | 27.253 | 5,7 |
| 88 Aireko edo espazioko nabigazioa | 22.105 | 4,6 |
| 86 Trenbideetako ibilgailuak | 20.734 | 4,4 |
| 82 Erremintak eta tresnak | 18.620 | 3,9 |
| 90 Optikako tresnak | 11.735 | 2,4 |
| 22 Edariak | 9.237 | 1,9 |
| 40 Kautxua eta bere manufakturak | 6.076 | 1,2 |
| 48 Papera eta kartoia | 3.602 | 0,7 |
| 83 Manufaktura metalikoak | 2.509 | 0,5 |
| 15 Gantz eta olioak | 1.929 | 0,4 |
| 75 Nikela eta bere manufakturak | 1.622 | 0,3 |

*Iturria:* DATACOMEX

### 11. taula: Euskadik Txinatik inportatutako produktu nagusiak, 2018

| PRODUKTUA | 2018 | % |
|---|---|---|
| **GUZTIRA (milaka euro)** | **1.151.798** | **100,0** |
| 84 Ekipamendu-ondasun mekanikoak | 209.791 | 18,2 |
| 85 Makina eta gailu elektrikoak | 179.239 | 15,5 |
| 73 Galdaketako manufakturak | 108.407 | 9,4 |
| 87 Automobilak | 80.982 | 7 |
| 72 Galdaketa (burdina eta altzairua) | 67.730 | 5,8 |
| 83 Manufaktura metalikoak | 57.511 | 4,9 |
| 94 Altzariak | 31.426 | 2,7 |
| 39 Materia plastikoak | 29.884 | 2,5 |
| 76 Aluminioa eta bere manufakturak | 29.033 | 2,5 |
| 62 Jantziak, puntuzkoak izan ezik | 24.106 | 2 |
| 28 Produktu kimiko inorganikoak | 24.028 | 2 |
| 90 Optikako tresnak | 22.956 | 1,9 |
| 95 Jostailuak eta aisialdiko produktuak | 22.284 | 1,9 |
| 88 Aireko edo espazioko nabigazioa | 21.473 | 1,8 |

*Iturria:* DATACOMEX

Ondorengo grafikoan, Euskadik Espainiaren esportazioen guztizkoan eta Espainiak Txinara egiten dituen esportazioetan duen pisua adierazten da.

6. grafikoa: Euskadiren pisua Espainiaren esportazioetan, 2015-2020 (%)




*Iturria:* DATACOMEX

Ikusten denez, aukeratutako denbora-tartean (2015-2020) Euskadiko esportazioen guztizkoak Espainiako esportazioen guztizkoarekiko duen pisuaren batez bestekoa handiagoa da Euskaditik Txinara egindako esportazioek Espainiak Txinara egindako esportazioekiko duen pisuaren batez bestekoa baino (ikus taula metodologikoak, jarraian). Euskadik esportazioen guztizkoaren % 8,6 bakarrik hartzen duen arren, sektore garrantzitsu batean duen barneratze-maila aipatu behar da: ekipamendu-ondasunak (% 15,8). Halaber, ez da ahaztu behar sektore hauetan duen eragina: produktu energetikoak (% 12,3), automobilgintza (% 9,7) eta erdimanufakturak (% 9,4).

Euskaditikk Txinara egindako esportazioek Espainiatik Txinara egindako esportazioekiko duen pisuari dagokionez, esan behar da, ekipamendu-ondasunen kasuan izan ezik –sektore horretako esportazioen ehunekoa nahiko garrantzitsua baita eta egonkor mantendu baita urte horietan (% 34,6ko batez bestekoa); Espainian segmentu horrek izan duen barneratze-maila baino askoz ere handiagoa da ehuneko hori (% 15,8)–, nahiko baxua dela Euskaditik Txinara egindako esportazioek Espainiatik Txinara egindako esportazioekin alderatuta duten pisua (% 8,3). Halere, Euskadiko industria-sektoreak intentsitate bikoitza du Txinarekiko, Espainiako industria-sektore osoarekin alderatuta.

Bukatzeko, CIVEXen arabera, 161 euskal enpresek esportazioak egiten dituzte Txinara (28 Araban, 73 Bizkaian eta 60 Gipuzkoan).

12. taula: Euskadiren pisua Espainiaren esportazioetan, 2015-2020

| EUSKADIKO ESPORTAZIOEN GUZTIZKOAREN PISUA ESPAINIAKO ESPORTAZIOEN GUZTIZKOAREKIKO, SEKTOREKA (%) | GUZTIZKOA 2015-2020 | 2015 | 2016 | 2017 | 2018 | 2019 | 2020 (e) |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| AUKERATUTAKO GUZTIZKOA | 8,6 | 8,8 | 8,4 | 8,7 | 8,9 | 8,7 | 8,2 |
| 1 ELIKADURA, EDARIAK ETA TABAKOA | 2,1 | 2,3 | 2,1 | 2,0 | 2,1 | 2,1 | 2,1 |
| 2 PRODUKTU ENERGETIKOAK | 12,3 | 18,7 | 12,9 | 11,6 | 11,5 | 9,7 | 9,4 |
| 3 LEHENGAIAK | 4,6 | 5,1 | 5,1 | 4,3 | 4,4 | 3,9 | 5,1 |
| 4 ERDIMANUFAKTURAK | 9,4 | 9,8 | 9,3 | 9,2 | 9,8 | 9,4 | 9 |
| 5 EKIPAMENDU-ONDASUNAK | 15,8 | 16,0 | 14,6 | 15,6 | 16,1 | 16,9 | 15,6 |
| 6 AUTOMOBILGINTZA | 9,7 | 8,1 | 9,7 | 10,9 | 10,2 | 9,8 | 9,6 |
| 7 KONTSUMO-ONDASUN IRAUNKORRAK | 5,5 | 5,9 | 5,1 | 5,2 | 5,3 | 6 | 5,8 |
| 8 KONTSUMO-MANUFAKTURAK | 1,8 | 1,9 | 1,8 | 1,9 | 1,8 | 1,8 | 1,8 |
| 9 BESTE SALGAI BATZUK | 2,1 | 1,1 | 2,4 | 1,5 | 3,1 | 1,7 | 2,9 |

| EUSKADIKO ESPORTAZIOEN PISUA ESPAINIATIK TXINARA EGINDAKO ESPORTAZIOEKIKO, SEKTOREKA (%) | GUZTIZKOA 2015-2020 | 2015 | 2016 | 2017 | 2018 | 2019 | 2020 (e) |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| AUKERATUTAKO GUZTIZKOA | 8,3 | 10,09 | 10,07 | 9,04 | 7,4 | 7,3 | 6,3 |
| 1 ELIKADURA, EDARIAK ETA TABAKOA | 1,7 | 1,7 | 1,02 | 1,2 | 1,1 | 0,5 | 0,2 |
| 2 PRODUKTU ENERGETIKOAK | 0,9 | 3,5 | 1,7 | 0,6 | 0,1 | 0,4 | 1,2 |
| 3 LEHENGAIAK | 4,7 | 6,8 | 9,7 | 5,1 | 1,9 | 2,2 | 2,8 |
| 4 ERDIMANUFAKTURAK | 7,3 | 4,5 | 12,5 | 6,5 | 5,3 | 5,8 | 9,5 |
| 5 EKIPAMENDU-ONDASUNAK | 34,6 | 37,13 | 32,08 | 31,4 | 32,4 | 39,4 | 35,19 |
| 6 AUTOMOBILGINTZA | 5,5 | 3,7 | 5,3 | 7,6 | 6,4 | 7,1 | 3,2 |
| 7 KONTSUMO-ONDASUN IRAUNKORRAK | 3,6 | 6,4 | 3,4 | 1,2 | 1,3 | 4,9 | 4,6 |
| 8 KONTSUMO-MANUFAKTURAK | 0,3 | 0,5 | 0,3 | 0,4 | 0,4 | 0,3 | 0,3 |
| 9 BESTE SALGAI BATZUK | 2,9 | 2,5 | 4,2 | 4,5 | 1,9 | 1,6 | 2,8 |

*Iturria:* DATACOMEX

Hurrengo taulan, Espainiatik eta Euskaditik Txinara esportatutako produktuen ranking-a agertzen da, 2015-2020 epealdian.

13 taula: Espainiak eta Euskadik Txinara esportatutako produktuen ranking-a, 2015-2020 epealdian

| ESPAINIAREN ESPORTAZIOAK | (2015-2020) | EAE-REN ESPORTAZIOAK | (2015-2020) |
|---|---|---|---|
| AUKERATUTAKO GUZTIZKOA (mila euro) | 29.351.945 | AUKERATUTAKO GUZTIZKOA (mila euro) | 2.541.476 |
| 1 ELIKADURA, EDARIAK ETA TABAKOA | 6.488.314 | 5 EKIPAMENDU-ONDASUNAK | 1.611.580 |
| 4 ERDIMANUFAKTURAK | 6.296.585 | 4 ERDIMANUFAKTURAK | 436.778 |
| 3 LEHENGAIAK | 6.205.971 | 3 LEHENGAIAK | 279.994 |
| 5 EKIPAMENDU-ONDASUNAK | 4.694.914 | 6 AUTOMOBILGINTZA | 122.129 |
| 8 KONTSUMO-MANUFAKTURAK | 2.948.057 | 1 ELIKADURA, EDARIAK ETA TABAKOA | 63.405 |
| 6 AUTOMOBILGINTZA | 1.976.143 | 8 KONTSUMO-MANUFAKTURAK | 12.672 |
| 7 KONTSUMO-ONDASUN IRAUNKORRAK | 339.573 | 7 KONTSUMO-ONDASUN IRAUNKORRAK | 10.670 |
| 2 PRODUKTU ENERGETIKOAK | 298.261 | 9 BESTE SALGAI BATZUK | 2.655 |
| 9 BESTE SALGAI BATZUK | 104.127 | 2 PRODUKTU ENERGETIKOAK | 1.593 |

*Iturria:* DATACOMEX

## 6.2. Euskadiren posizionamendua

Beharrezkoa da Txinako inportazioen pisua aztertzea, erlatiboki lehiakorrak garen ondorioztatu ahal izateko. BasqueTrade-ren lan baten arabera, 34 eremu (48 herrialde) aztertuta, Euskadi nahiko maila baxuan barneratu da Txinan merkataritzaren ikuspegitik (2017an, % 0,03a ordezkatzen zuen Txinako inportazioekiko); hain zuzen, 30. lekuan zegoen. Aurreko atalean adierazi denez, Espainiak Txinara egindako esportazioekiko Euskadik duen pisua antzekoa da (txikiagoa) azken bost urteetan Espainiako esportazioen guztizkoan Euskadik izan duen pisuarekiko, ekipamendu-ondasunen sektorean izan ezik. Sektore horretan, Euskaditik Txinara egindako esportazioek Espainiatik Txinara egindako esportazioekiko duten barneratze-maila bikoitza da, gutxi gorabehera, Espainiako esportazioen guztizkoarekiko (% 34,6 eta % 15,8, hurrenez hurren).

Segidan, azken urtean Euskadik Txinako inportazioetan izan duen kuota agertzen da, sektoreka, eta azken 5 urteetan izan duen bilakaera.

14. taula: Sektore bakoitzeko kuotaren ranking-a 2017an eta hazkundearen araberako kuota-eboluzioaren rankinga, 2012-2017

| SECTORES | | 2017 | SECTORES | | Evol. 2017-2002 | Evol. 2017-2012 |
|---|---|---|---|---|---|---|
| 73A | Tubos y accesorios | 2,73% | 73A | Tubos y accesorios | 2,36% | 2,19% |
| 86 | Vehículos de vías férreas | 0,82% | 86 | Vehículos de vías férreas | 0,81% | 0,54% |
| 84C | Máquinas herramienta para trabajar metal | 0,70% | 82 | Herramientas y útiles | 0,41% | 0,35% |
| 82 | Herramientas y útiles | 0,62% | 84D | Grúas y aparatos elevacion | 0,33% | 0,26% |
| 84D | Grúas y aparatos elevacion | 0,36% | 97 | XXI Objetos de arte | 0,14% | 0,14% |
| 22 | Bebidas | 0,22% | 88 | Navegación aérea o espacial | 0,10% | 0,10% |
| 83 | Manufacturas metálicas | 0,18% | 22 | Bebidas | 0,22% | 0,09% |
| 85A | Motores y generadores eléctricos | 0,16% | 83 | Manufacturas metálicas | 0,12% | 0,08% |
| 97 | XXI Objetos de arte | 0,14% | 47-49 | Pasta, papel y sus manufacturas | 0,13% | 0,07% |
| 47-49 | Pasta, papel y sus manufacturas | 0,13% | 74 | Cobre y sus manufacturas | 0,11% | 0,07% |
| 87C | Partes y accesorios | 0,12% | 73C | Cables, alambre, tornillería, muelles | -0,07% | 0,06% |
| 84F | Otra maquinaria mecánica | 0,12% | 85A | Motores y generadores eléctricos | -0,12% | 0,06% |
| 74 | Cobre y sus manufacturas | 0,11% | 85B | Transformadores | -0,02% | 0,04% |
| 73C | Cables, alambre, tornillería, muelles | 0,11% | 73D | Otras manufacturas de hierro o de acero | 0,10% | 0,04% |
| 88 | Navegación aérea o espacial | 0,11% | 72A | Productos planos acero común | 0,03% | 0,03% |
| 73D | Otras manufacturas de hierro o de acero | 0,11% | 72D | Barras y perfiles acero inoxidable y aleado | 0,00% | 0,03% |
| 40 | Caucho y manufacturas | 0,06% | 40 | Caucho y manufacturas | 0,05% | 0,02% |
| 85B | Transformadores | 0,06% | 15 | Grasas y aceites | 0,02% | 0,02% |
| 72D | Barras y perfiles acero inoxidable y aleado | 0,03% | 93 | Armas y municiones | -0,43% | 0,02% |
| 72B | Barras y perfiles acero común | 0,03% | 16-24 (-22) | Productos alimenticios | 0,01% | 0,01% |
| 84E | Equipamiento hosteleria y aparatos doméstico | 0,03% | 73B | Depósitos, recipientes | -0,05% | 0,01% |
| 72A | Productos planos acero común | 0,03% | 87A | Vehículos automóviles | 0,01% | 0,01% |
| 84B | Motores | 0,03% | 44-46 | Madera y sus manufacturas | 0,01% | 0,01% |
| 72E | Otros de fundición hierro y acero | 0,02% | 72C | Productos planos acero inoxidable y aleado | 0,01% | 0,00% |
| 15 | Grasas y aceites | 0,02% | 90-92 | XVIII Aparatos de óptica y precisión | -0,01% | 0,00% |
| 93 | Armas y municiones | 0,02% | 68-70 | Piedra, cementos y vidrio | 0,01% | 0,00% |
| 76 | Aluminio y manufacturas | 0,02% | 39 | Materias plásticas | 0,00% | 0,00% |
| 16-24 (-22) | Productos alimenticios | 0,01% | 84B | Motores | -0,11% | 0,00% |
| 90-92 | XVIII Aparatos de óptica y precisión | 0,01% | 85E | Otros bienes de equipo eléctricos | -0,01% | 0,00% |
| 72C | Productos planos acero inoxidable y aleado | 0,01% | 1 a 5 | Productos del reino animal | -0,09% | 0,00% |
| 75, 78-81 | Otros metales y manufacturas | 0,01% | 99 | No clasificados | -0,04% | 0,00% |
| 85E | Otros bienes de equipo eléctricos | 0,01% | 28-38 | Productos químicos | -0,01% | 0,00% |
| 87A | Vehículos automóviles | 0,01% | 25-27 | Productos minerales | 0,00% | 0,00% |
| 84A | Calderas y turbinas | 0,01% | 71 | Joyería y bisutería | 0,00% | 0,00% |
| 68-70 | Piedra, cementos y vidrio | 0,01% | 89 | Navegación marítima o fluvial | 0,00% | 0,00% |
| 73B | Depósitos, recipientes | 0,01% | 87B | Vehículos para transporte mercancías | 0,00% | 0,00% |
| 44-46 | Madera y sus manufacturas | 0,01% | 6 a 14 | Productos del reino vegetal | 0,00% | 0,00% |
| 39 | Materias plásticas | 0,00% | 85D | Alumbrado | 0,00% | 0,00% |
| 94-96 | Muebles, juguetes, otras | 0,00% | 41-43, 50-67 | Textiles y sus manufacturas | 0,00% | 0,00% |
| 1 a 5 | Productos del reino animal | 0,00% | 75, 78-81 | Otros metales y manufacturas | 0,01% | -0,01% |
| 99 | No clasificados | 0,00% | 85C | Baterías, acumuladores, electroimanes | 0,00% | -0,01% |
| 41-43, 50-67 | Textiles y sus manufacturas | 0,00% | 94-96 | Muebles, juguetes, otras | -0,21% | -0,01% |
| 28-38 | Productos químicos | 0,00% | 72E | Otros de fundición hierro y acero | 0,01% | -0,01% |
| 85C | Baterías, acumuladores, electroimanes | 0,00% | 84F | Otra maquinaria mecánica | 0,09% | -0,02% |
| 25-27 | Productos minerales | 0,00% | 84E | Equipamiento hosteleria y aparatos domésticos | -0,02% | -0,02% |
| 85D | Alumbrado | 0,00% | 76 | Aluminio y manufacturas | 0,01% | -0,02% |
| 6 a 14 | Productos del reino vegetal | 0,00% | 84A | Calderas y turbinas | -0,17% | -0,03% |
| 71 | Joyería y bisutería | 0,00% | 72B | Barras y perfiles acero común | -0,05% | -0,06% |
| 89 | Navegación marítima o fluvial | 0,00% | 87C | Partes y accesorios | 0,00% | -0,11% |
| 87B | Vehículos para transporte mercancías | 0,00% | 87D | Otros del capitulo de vehículos automoviles | -0,38% | -0,25% |
| 87D | Otros del capitulo de vehículos automoviles | -0,16% | 84C | Máquinas herramienta para trabajar metal | 0,60% | -0,25% |

Fuente: Elaboración propia con datos Eustat y UN Comtrade

Azterketa hori ikusgarriago egiteko, hona hemen, sektorez sektore, Euskadik Txinan duen posizionamenduari buruzko grafikoa, interpretazio hauetan oinarrituta:

- **Indartsuak:** Sektore hauetan asko handitu dira Txinara egindako inportazioak azken 5 urteetan, eta Euskadiko kuota ere handitu egin da.
- **Heldutasuna:** Inportazioak ez dira hazi, baina Euskadiren kuota bai.
- **Potentziala:** Sektore hauetan asko handitu dira Txinara egindako inportazioak azken 5 urteetan, baina Euskadiko kuota ez da handitu.
- **Interes baxua:** Sektore hauetan Txinara egindako inportazioak ez dira handitu azken 5 urteetan, eta Euskadiko kuota ere ez.




| | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|
| 16-24 (-22) | Productos alimenticios | 73C | Cables, alambre, tornillería, muelles | 85A | Motores y generadores eléctricos |
| 22 | Bebidas | 73D | Otras manufacturas de hierro o de acero | 85B | Transformadores |
| 25-27 | Productos minerales | 74 | Cobre y sus manufacturas | 85E | Otros bienes de equipo eléctricos |
| 28-38 | Productos químicos | 76 | Aluminio y manufacturas | 86 | Vehículos de vías férreas |
| 39 | Materias plásticas | 82 | Herramientas y útiles | 87A | Vehículos automóviles |
| 40 | Caucho y manufacturas | 83 | Manufacturas metálicas | 87B | Vehículos para transporte mercancías |
| 47-49 | Pasta, papel y sus manufacturas | 84B | Motores | 87C | Partes y accesorios |
| 72A | Productos planos acero común | 84C | Máquinas herramienta para trabajar metal | 88 | Navegación aérea o espacial |
| 72B | Barras y perfiles acero común | 84D | Grúas y aparatos elevacion | 89 | Navegación marítima o fluvial |
| 72D | Barras y perfiles acero inoxidable y aleado | 84E | Equipamiento hosteleria y aparatos domésticos | | |
| 73A | Tubos y accesorios | 84F | Otra maquinaria mecánica | | |

Gogoratu behar da Txina 1. lehentasun-mailan dagoela enpresen nazioartekotzeari buruzko Eusko Jaurlaritzaren 2017-2020ko plangintza estrategikoan. Horren haritik, aurreko taulan hodi eta osagarrien sektorearen hazkundea azpimarratu arren, sektore horretako inportazioak ez ziren hazi 2012tik 2017rako epealdian. Horregatik ageri da grafikoan sektore heldu gisa, tren-sektorea bezala. Sektore indartsutzat hartzen dira, esaterako, edarien sektorea, sektore aeronautikoa, erreminten sektorea eta pasta eta paperaren sektorea. Eta sektore potentzial gisa hartzen dira automobilgintzako osagarrien eta ekipamendu-ondasun elektrikoen sektoreak.

## 6.3. Aldebiko inbertsioak

Gure datuen arabera, 238 euskal enpresa daude Txinan finkatuta. Horietatik 114 komertzialak dira, 91 produktiboak eta 32 zerbitzuen arlokoak. Nagusiki, sektore hauek ordezkatzen dituzte: makina-erreminta eta horien osagarriak (66), automobilgintza (39), erreminta eta produktu metalikoak (22), energia eta material elektrikoak (22), ingeniaritza eta aholkularitza (13), garraioa eta logistika (11), beste ekipamendu-ondasun batzuk (11) eta telekomunikazioak (10).

15. taula: Gaur egun Txinan finkatuta dauden euskal enpresak

| SEKTOREA | FINKATUTAKO ENPRESAK | KOMERTZIALA | PRODUKTIBOA | ZERBITZUAK |
|---|---|---|---|---|
| 02 NEKAZARITZAKO ELIKAGAIAK | 6 | 6 | - | - |
| 03 EHUNGINTZA | 3 | 3 | - | - |
| 08 ERAIKUNTZAKO MATERIALAK | 2 | 2 | - | - |
| 09 SIDERURGIA | 2 | 2 | - | - |
| 10 ERREMINTAK ETA PRODUKTU METALIKOAK | 22 | 12 | 10 | - |
| 11 ERAIKUNTZAKO EKIPAMENDUAK | 2 | 2 | - | - |
| 12 SIDERURGIARAKO EKIPAMENDUAK | 1 | 1 | - | - |
| 14 SEKTORE KIMIKOKO ETA PAPERGINTZAKO EKIPAMENDUAK | 1 | 1 | - | - |
| 15 MAKINA-ERREMINTA ETA BERE OSAGARRIAK | 66 | 47 | 17 | 2 |
| 16 BESTE EKIPAMENDU-ONDASUN BATZUK | 11 | 4 | 7 | - |
| 17 ENERGIA ETA MATERIAL ELEKTRIKOA | 22 | 10 | 12 | - |
| 18 ETXETRESNA ELEKTRIKOAK | 2 | - | 2 | - |
| 19 TELEKOMUNIKAZIOAK | 10 | 6 | 4 | - |
| 20 AUTOMOBILGINTZA | 39 | 6 | 30 | 3 |
| 21 SEKTORE AERONAUTIKOA | 1 | 1 | 1 | - |
| 22 ALTZARIAK ETA ETXEKO OSAGARRIAK | 5 | 4 | 1 | - |
| 24 ASKOTARIKO ZERBITZUAK | 9 | 1 | - | 8 |
| 26 ITSAS ETA GARRAIO INDUSTRIAK | 2 | 1 | 1 | - |
| 28 GARRAIOA ETA LOGISTIKA | 11 | 1 | 1 | 9 |
| 29 HEZKUNTZA ETA IKERKETA | 2 | - | - | 2 |
| 30 INGENIARITZA ETA AHOLKULARITZA | 13 | 4 | 3 | 6 |
| 31 IKUS-ENTZUNEZKOEN SEKTOREA | 2 | - | - | 2 |
| 32 SEKTORE BIOMEDIKOA | 1 | - | 1 | - |
| 33 TREN-SEKTOREA | 3 | 1 | 2 | - |

*Iturria:* BasqueTrade Office in Shanghái

Bestalde, Bureau Van Dijk erakundearen arabera, 17 euskal enpresek partaidetzak dituzte enpresa txinatarretan.

# 7. SEKTORE NAGUSIAK

## 7.1. BPGari egindako ekarpena

Segidan, Txinako BPGaren banaketa azaltzen da, sektoreka, eta iturri nazionalak eta azken data eskuragarriak (2017) kontuan hartuta. Bigarren eta hirugarren sektoreek duten pisu handia da nabarmendu beharreko datuetako bat.

### 16. taula: BPGari egindako ekarpena sektoreka, 2017

| SEKTOREA | GUZTIZKOA (mila milioi USD) | GUZTIZKOA (BPG-AREN %) |
|---|---|---|
| BPG-A GUZTIRA | 11.706 | 100 |
| Lehen sektorea | 924 | 7,9 |
| Bigarren sektorea | 4.737 | 40,5 |
| Hirugarren sektorea | 6.045 | 51,6 |

*Iturria:* National Bureau of Statistics China (NBS), azken datu eskuragarriak

Segidan, azken data eskuragarrietako Txinako BPG-aren banaketa agertzen da sektore ekonomiko eta industrialen arabera.

### 17. taula: BPGari egindako ekarpena sektore ekonomiko eta industrialen arabera, 2017

| SEKTORE EKONOMIKO ETA INDUSTRIALAK | GUZTIZKOA (mila milioi USD) | GUZTIZKOA (BPG-AREN %) |
|---|---|---|
| BPG-A GUZTIRA | 11.706 | 100 |
| Nekazaritza, basogintza eta arrantza | 962 | 8,2 |
| Industria | 3.964 | 33,9 |
| Eraikuntza | 788 | 6,7 |
| Handizkako eta txikizkako merkataritza | 1.100 | 9,4 |
| Garraioa eta posta-zerbitzuak | 521 | 4,4 |
| Ostatu- eta otordu-zerbitzuak | 206 | 1,8 |
| Finantzak eta aseguruak | 930 | 7,9 |
| Sustrai ondasunak/higiezinak | 762 | 6,5 |
| Beste jarduera batzuk | 2.473 | 21,1 |

*Iturria:* National Bureau of Statistics China (NBS), azken datu eskuragarriak

Ikusten denez, industriaren sektoreak bereganatzen du BPG-aren ehuneko handiena (% 33,9).

Segidan, 2018an Txinak izandako merkatu-bolumenak adierazten dira.

18. taula: Merkatu-bolumenak, 2018

| SEKTOREA | GUZTIZKOA (mila milioi USD) | % |
|---|---|---|
| GUZTIRA | 9.636 | 100 |
| ENERGIA | 1.090 | 11,3 |
| Petrolio gordina eta gas naturala erauztea | 142 | 1,5 |
| Meatzaritza | 335 | 3,5 |
| Petrolio finduko produktuak | 519 | 5,4 |
| Beste batzuk | 94 | 0,9 |
| ZERBITZU PUBLIKOAK ETA BIRZIKLAPENA | 1.539 | 16 |
| Birziklapena | 324 | 3,4 |
| Elektrizitatea | 1.009 | 10,5 |
| Beste batzuk | 206 | 2,1 |
| MAKINERIA | 1.456 | 15,1 |
| Garraiorako tresnak, zatiak eta osagarriak | 86 | 0,9 |
| Mahai-tresnak, eskuz egindako erremintak eta ekipamendu-ondasunak, oro har | 95 | 1 |
| Goratzeko eta manipulatzeko ekipoak | 95 | 1 |
| Egokitzapen industrialerako eta enbalajerako ekipamenduak eta erabilera orokorreko beste makina batzuk. | 289 | 3 |
| Ponpak, konpresoreak, iturriak eta balbulak | 152 | 1,6 |
| Makina-erreminta | 109 | 1,1 |
| Eraikuntzako, meatzaritzako eta erauzketako makineria | 170 | 1,8 |
| Industria plastikorako, kautxu eta papergintzarako eta beste helburu berezi batzuetarako makineria | 226 | 2,3 |
| Beste batzuk | 234 | 2,4 |
| GOI-TEKNOLOGIAKO HONDASUNAK | 2.885 | 29,9 |
| Etxeko erabilerarako | 230 | 2,4 |
| Telebista, irratia, soinu- eta bideo-gailuak | 140 | 1,4 |
| Metagailuak eta bateriak | 122 | 1,3 |
| Motorrak, transformadoreak eta sorgailu elektrikoak | 220 | 2,2 |
| Ibilgailu eta motorretarako ekipo elektrikoak | 190 | 1,9 |
| Banaketa elektrikorako makineria eta kontrol-aparatuak | 169 | 1,7 |
| Isolamendurako alanbreak eta kableak | 235 | 2,4 |
| Ordenagailuak eta bulegoko ekipamendua | 349 | 3,6 |
| Osagai elektronikoak, balbulak eta hodiak | 655 | 7 |
| Telefono mugikorrak, irrati-transmisoreak eta telebista-kamerak | 373 | 3,9 |
| Beste batzuk | 202 | 2,1 |
| GARRAIO-EKIPOAK | 1.575 | 16,3 |
| Ibilgailuen zatiak eta motorrak | 1.270 | 13,2 |
| Tren- eta tranbia-lokomotorrak eta material mugikorra | 74 | 0,7 |
| Itsasontziak eta ontziak | 98 | 1 |
| Beste batzuk | 133 | 1,4 |
| NEGOZIO-ZERBITZUAK | 1.094 | 11,4 |

*Iturria:* EUROMONITOR

Besteak beste, sektore hauen eragina nabarmentzen da: goi-teknologiako ondasunak (% 29,9), garraio-ekipoak (% 16,3), zerbitzu publikoak eta birziklapena (% 16) eta makineria (% 15,1).

## 7.2. Negozio-aukerak

Gaingiroki, Txinaren interes nagusia industria-hornidurak (974.171M USD) eta kapital-ondasunak (468.820 USD) dira, inportatutako guztizkoa kontuan hartuta (2.135.748M USD). 2018an, hauek izan ziren Txinak gehien inportatutako produktuak: makina eta aparatu elektrikoak, erregai mineralak eta ekipamendu-ondasun mekanikoak. Zehazki, lehenago esan bezala, hauek dira Txinak gehien inportatzen dituen produktuak: zirkuitu integratu elektronikoak eta mikroegiturak (% 14,2), petrolio-olioak (% 11,2), burdin-mineralak (% 3,5), petrolio-gasa (% 2,3) eta ibilgailu automotorrak (% 2,3). Herrialdearen intereseko sektoreen adierazle orokorra izan daiteke hori.

Euskal enpresentzako negozio-aukera partikularrei dagokienez, kanpo-merkataritzari buruzko atalean ikusi dugunez, zenbait sektoretan lehiakorrak gara, eta Txinak inportazio garrantzitsuak egiten ditu alor horietan; besteak beste, ekipamendu-ondasun mekanikoei (% 40,7), galdaketako manufakturei (% 11,7) eta makineria eta aparatu elektrikoei (% 11,4) buruz ari gara. Beraz, RIS3 Euskadi estrategiarekin eta zehazturiko lehentasunezko bost merkatuekin bat etorriz (garraioa eta mugikortasuna, mundu digitala, zientziaren industria, zahartzea eta osasuna eta energia), ikusten dugu Txinak aukerak eskaintzen dituela sektore hauentzat:

**Erreminta eta tresnen** eta **aireko eta espazioko nabigazioaren** sektoreak interesgarriak izan daitezke euskal enpresentzat, kontuan izanik, aurreko koadroan adierazten den moduan, industria indartsuko sektore gisa sailkatuta daudela. Txina makina-erremintaren ekoizle eta kontsumitzaile handiena bezala dago posizionatuta. Horren erakusgarri da Euskaditik inportatutako makina eta aparatu elektrikoen eta ekipamendu-ondasun mekanikoen bolumena.

Bestalde, **energiaren sektoreak** ere aukera handiak eskaintzen ditu, batez ere, Txina energia-trantsizio betean dagoela kontuan izanda. Hala, Txinak aldaketak egin ditu hazkundea bultzatzeko erabili dituen energia-sistemen egituretan, eta sistema horien iturriak dibertsifikatu ditu. Hain zuzen, 2020an ekoitzitako energiaren % 15 energia berriztagarrietatik lortzea du helburu.[43] Horrez gainera, *Made in China 2025* planean, zibilizazio ekologikoa eraikiko duen energia-iraultzaren alde egiten da, eta bereziki azpimarratzen da “teknologia berderako” aldaketa bultzatzeko beharra.[44] Hori dela eta, uste dugu merkatu interesgarria izan daitekeela energia berriztagarrien sektoreko euskal enpresentzat

**Automobilgintza** sektorean, arreta berezia jarri behar zaie energia berriko ibilgailuei, Txinan egindako azken azoketan aditzera eman den moduan. Azoka horietan ikusi denez, Covid-19aren krisiaren aurretik, azkartu egin nahi zen ibilgailu elektrikoetarako trantsizioa (EV100, adibidez), BasqueTrade-n zaintzarako plataforma digitalean jasotako informazioan erakusten den moduan (segidan zehazten da informazio hori). Horrez gainera, 2025erako, auto elektrikoen salmentek salmenten guztizkoaren % 20a ordezkatzea espero du Txinak, eta, beraz, sektore horretan inbertitzeko eta atzerriko enpresekin lan egiteko jarrera adierazten du horrek.

Bestalde, International Trade Center erakundearen arabera, Txinako nazioarteko merkatua aztertuz gero, produktu horiek potentzial inportatzaileko produktu gisa detektatzen dira.

---

[43]ICEX (2020ko apirila): China: Estructura de la oferta. Sector secundario. https://www.icex.es/icex/es/navegacion-principal/todos-nuestros-servicios/informacion-de-mercados/paises/navegacion-principal/el-pais/informacion-economica-y-comercial/estructura-de-la-oferta/index.html?idPais=CN

[44]ICEX (2020ko apirila): Plan Made in china 2025. https://www.icex.es/icex/es/navegacion-principal/todos-nuestros-servicios/informacion-de-mercados/paises/navegacion-principal/el-mercado/estudios-informes/DOC2016671546.html?idPais=CN

19. taula: Txinarentzat potentzial inportatzailea duten sektore nagusiak, ITC




Azkenik, hauek izango lirateke BasqueTrade-n behaketa-sistemak detektatutako aukeretako batzuk:

Sunpower Group enpresak Txinako 10MW-ko biomasako ko-sorkuntzako planta batean inbertituko du; hortaz, energia-sektorearen balioa handitu egingo da.

Bestalde, Toyota-k 1.200 M USD inbertitzeko asmoa du FAWrekin batera, Tianjin-eko ibilgailu elektrikoen planta berri batean, automobilgintzaren interes potentzialaren adierazgarri. Txinan, aukera berrietara dibertsifikatzen ari da sektorea, eta, ondorioz, urtean 200.000 ibilgailu elektrikoko manufaktura-gaitasuna lortuko du Txinak. Halaber, Toyota enpresa japoniarrak 400 M USD bideratu ditu gidatze autonomoan aritzen den Txinako Pony.ai startup-era. Ildo horretatik, automobil elektrikoetarako bateriak diseinatu, garatu eta ekoizteko *joint-venture* bat sortuko du BYD enpresarekin batera. Aurreikuspenen arabera, 2020ko maiatzean jarriko dute martxan akordioa. Horrez gain, Volkswagen enpresak eta Shanghái Du-Power New Energy Technical startup-ak karga azkarreko estazio malguak eraikiko dituzte Txinan. *Joint-venture* hori mugarria izango da automobilgintza sektorean eta aukera handia da industriako enpresentzat.

Bestalde, Txinak trenbideen eraikuntza bultzatuko du epe luzera. Sektoreko proiektuak lehentasunezkotzat hartzen dira, eta modu ekitatiboan bultzatuko dira bidaiarien garraiorako eta karga-garraiorako proiektuak. Beraz, sektoreak aukera ezin hobea du negozioak egiteko.

Bere aldetik, Munduko Bankuak 100 M USD mailegatu dizkio Txinari Sichuan-go landa-eremuko ur- eta saneamendu-zerbitzuak hobetzeko, lankidetza publiko-pribatu bidez. Hala, Sichuan-go ur- eta saneamendu-horniduren azpiegiturak hobetu ahal izango dira (uren tratamendurako plantak eta hoditeriak, estolderia-sareak, hondakin-uren tratamendurako plantak eta etxebizitzekin konektatzeko zerbitzuak). Guztira, 230.000 lagunek proiektu horren etekinak jaso ahal izango dituztela kalkulatzen da.

# 8. NAZIOARTEKO HARREMANAK

## 8.1. Nazioarteko kidetasunak

Txina Nazio Batuetako Erakundeko (NBE) kidea da, eta Segurtasun Kontseiluko kide iraunkorra. Halaber, Asia eta Ozeano Bareko Lankidetza Ekonomikoaren Elkarteko (APEC) kide da 1991az geroztik, leku garrantzitsua du Nazioarteko Moneta Funtseko kide gisa, eta, 2001az geroztik, Merkataritzaren Mundu Erakundeko kide da.

ASEAN-Asiaren Hego-ekialdeko Adiskidetasun eta Lankidetza Hitzarmenaren kide da Txina. Onuragarria izan daiteke hori Txinan negozio bat martxan jarri nahi duten atzerriko enpresentzat; izan ere, ate bat irekitzen zaie eskualde horretako beste herrialde batzuekin merkataritza-harremanak errazago egiteko, kontuan izanik Txinak merkataritza askeko eremu bat duela bere eskualdeko herrialdeekin. Halaber, Txina Garapenerako Asiar Banketxearen (ADB) kide da 1986az geroztik, eta 2014an, Azpiegituretan Inbertitzeko Asiar Banketxea (AIIB) sortzea bultzatu zuen. Edozein herrialdek har dezake parte banketxe horretan, eta helburutzat du Asiako eta Ozeaniako azpiegitura-proiektuetan eta beste sektore produktibo batzuetan inbertitzea (Espainiak % 1,82ko partaidetza du banketxe horretan).

Horrez gain, Asia Europe Meeting (ASEM) erakundeko kide da, zeinari esker hurbilketa handiagoa egon baita EBren eta Txinaren artean. Bestalde, BRICS multzoko kide gisa, 2015eko uztailean, BRICSen garapenerako banketxe berriaren −Shanghai-n du egoitza eta 100.000 M USDko kapital zenbatetsia− inaugurazioan parte hartu zuen Txinak.

Bestalde, 1985az geroztik, Txinak eta EBk Lankidetza Komertzial eta Ekonomikorako Akordioa dute. Denborarekin, Lankidetza eta Asoziaziorako Akordio bihurtzea da helburua, baina akordioa ixteko negoziaketetan jarraitzen dute oraindik. Gainera, azken urteetan, era askotako elkarrizketa sektorialak egin dituzte, eta hainbat akordiotara iritsi dira.[45]

## 8.2. Merkataritza-akordioak

Merkataritza-akordioei dagokienez, honako akordio hauek ditu sinatuak Txinak, 15 herrialde eta eremu ekonomikorekin: Australia, ASEAN, APTA, Txile, Hego Korea, Costa Rica, Georgia, Islandia, Maldivak, Zeelanda Berria, Pakistan, Peru, Hong Kong eta Macau-ko Administrazio Eskualde Bereziak, Singapur eta Suitza.




Horrez gain, merkataritza askeko beste 9 akordio negoziatzen ari da, herrialde hauekin: Golkoko Lankidetza Kontseilua, Israel, Japonia-Korea, Maurizio, Moldavia, Palestina, Panama, Regional Comprehensive Economic Partnership (SCEPR) eta Sri Lanka.

Halaber, aztertzen ari da bideragarria izan litekeen herrialde hauekin merkataritza askeko akordioak egitea: Bangladesh, Bengala, Kanada, Kolonbia, Fiji, Mongolia, Nepal eta Papua Ginea Berria.

[45]ICEX (2020ko apirila): Red Exterior. China. 'Relaciones económicas Internacionales'. https://www.icex.es/icex/es /navegacion-principal/todos-nuestros-servicios/informacion-de-mercados/paises/navegacion-principal/el-pais/informacion-economica-y-comercial/relaciones-economicas-internacionales/index.html?idPais=CN

# 9. ASKOTARIKO ARRISKUAK

## 9.1. Herrialde-arriskua

20. taula: Herrialdearen arrisku-balorazioa, COFACE [46]

| HERRIALDEA | HERRIALDE-ARRISKUA | NEGOZIOEN EGOERA | OHARRAK |
|---|---|---|---|
| TXINA | B | B | -INDARGUNEAK<br>• Arrisku subirano kontrolatua; zor publiko nagusia zor domestikoa da eta bertako dibisan izendatua (CNY)<br>• Kanpo-zorraren arrisku baxua; dibisa-erreserba handia<br>• Aurrerapauso handia munduko hornidura-katean 2025erako<br>• Zerbitzu-sektore dinamikoa, merkataritza elektronikoko joera berriek gidatuta<br>• Azpiegitura handiak<br>-AHULGUNEAK<br>• Hazkunde ekonomikoan eragina izan dezakeen gainzorpetze handia<br>• Funtsezko osagai teknologikoen inportazioekiko mendekotasun handia<br>• Urteek aurrera egin ahala, merkataritza-superabita defizit bihurtzea espero da<br>• Kapitala SOE-ei (State owned enterprises) esleitu izanak kalte egin diezaioke hazkunde ekonomikoari epe luzera.<br>• Gobernuaren estrategia anbiguoa erreformen eta hazkundearen arbitro-lanak egitean<br>• Populazioaren zahartzea eta horrek ekarriko duen gastu publiko handia<br>• Ingurumen-arazoak |

[46] HERRIALDE-ARRISKUARI ETA NEGOZIOEN EGOERARI BURUZKO AZTERKETA. Enpresa-faktore zehatzen eta enpresak diharduen herrialdeko faktore erlatiboen konbinaziotik ondorioztatzen da arrisku orokorra. Gure azterketan, zazpi mailako sailkapena erabili da (**zenbat eta gorago, handiagoa da arriskua**): A1, A2, A3, A4, B, C eta D.

## 9.2. Iruzkin kualitatiboak

Pandemiaren aurretik, BPGaren hazkundeak % 6tik beherako jaitsiera izatea espero zen 2020an, egiturazko faktore eta faktore ziklikoen ondorioz, baina hazkundea nahiko egonkor mantenduko zela aurreikusten zen. Covid-19aren agerraldiaren ondoren, berriz, % 1,2ko hazkundea izango duela espero da, aurrerago aipatu den moduan. Enpresen zorpetzeak ezbaian jarri ditu epe luzeko aurreikuspen ekonomikoak. Hartutako neurrien ondorioz, egiturazko erreformak egin beharko dira, eta ondorio makroekonomikoak utziko dituzte epe luzera. Bestalde, 2019ko abenduan iragarritako merkataritza-akordioaz geroztik, murriztu egin dira AEB eta Txinaren arteko merkataritza-tentsioak. Hala ere, muga-zergek presio egiten jarraituko dute Txinaren hazkunde ekonomikoan, eta % 0,7ko eragina izango dute herrialdearen BPGan.

Bestalde, 2020ko urtarril eta otsailean, kanpo-merkataritzak urte arteko % 9,6ko jaitsiera izan du pandemiaren eraginez. Txinako Aduanen Administrazio Orokorraren arabera, martxoan esportazioek urte arteko % 6,6ko jaitsiera izan zuten, eta inportazioek % 0,9koa. Merkataritza-superabita, berriz, % 80,6 murriztu zen. COFACEren azterketaren arabera, manufakturen sektoreak −oro har BPGaren % 40 ordezkatzen du− ondorio negatiboak izango ditu eskaera domestikoan eta zerbitzuetan, enplegu- eta sarrera-kanalen bitartez. Hori dela eta, etxebizitzetako kontsumoak −BPGaren % 65 ordezkatzen du− % 8ko jaitsiera izango du.

2019an, urte arteko % 5,4 moteldu zen inbertsio pribatua, sarrera eta etekinen murrizketaren eraginez. Higiezinen merkatua egonkortzeko neurriek indarrean jarraitzen dute, prezioak igo daitezen saihestuz. Hala eta guztiz ere, agintariek era neurritsuan hartu dituzte ekonomia bultzatzeko neurriak. Hala, 2019ko martxoan, neurri fiskalen pakete gehigarri bat jarri zuten martxan, 565.045M-ko baliokoa. Pekinek ez zituen neurri horiek zabaldu, hirugarren hiruhilekoan hazkundeak beherakada nabarmena izan arren. Txinako Banku Popularrak berariazko moneta-neurri pizgarriak jarri ditu martxan; besteak beste, murrizketak erreserba-baldintzen zerrendan (RRR) eta likidezia-injekzioak merkatu irekiko eragiketen bidez (OMO). Horri esker, murriztu egin da banku arteko likidezia-murrizketa eta enpresa txiki eta ertainei (ETE) lagundu ahal izan zaie. Kredituaren hazkundea egonkor mantendu da. 2019ko lehenengo 9 hilabeteetan, urte arteko % 10,6ko hazkundea izan zuen; 2018an, berriz, % 11,2koa.

Balantza komertzialari dagokionez, inportazioak esportazioak baino azkarrago murriztu ziren 2019an. Hala eta guztiz ere, Covid-19a baino lehen, 2020an ekonomiak kontu korrontearen defizita izango zuela aurreikusten zen, kontsumoa bultzatzeko neurrien eraginez. Litekeena da agintariek dibisa-merkatuetan esku hartzea, balio-galeraren espektatibak ez gainditzen saiatzeko. Yuan-aren balio-galerak Txinaren merkataritza-trukeak bultzatu ditzake, baina, aldi berean, kapitalaren irteerak susta ditzake. Kontu korrontean defizit txiki bat izatea inolako mehatxua izan ez arren epe labur-ertainean, litekeena da kreditu-arriskuak areagotzea, finantziazio motaren arabera. Halaber, Txina AIZ hartzaile handienetako bat izan arren, populazioaren zahartzeak eta merkataritza-superabitak eragina izan dezakete zorraren metaketa sistemikoa modu egokian finantzatzeko behar adinako aurrezkiak sortzeko gaitasunean.

Zor-mailek oso altuak izaten jarraitzen dute, eta zor korporatiboa da zatirik handiena. Gainera, zorpetutako enpresa horietako asko estatuaren jabetzakoak dira. Zaila da enpresen zorra kuantifikatzea, itzalpeko bankaren hedapena dela medio. 2019ko martxoaren amaieran, itzalpeko bankaren aktiboak % 67 murriztu zirela kalkulatzen da. Zifra hori handiagoa izan daiteke kontuan hartzen badira banketxeen beste finantza-bitartekaritza batzuk −ondarearen kudeaketarako produktuak barne−, eta, gainera, zifra errekorrera irits daiteke, kontuan hartzen bada bonu eta bide berezien bidezko gobernuaren finantzaketa handiagoa.

Faktore politikoak ere mehatxu izan dira ekonomia txinatarrarentzat. Alde horretatik, erretorika ofiziala gogortzea izan da Pekinen erantzuna, bai estatu mailan bai kanpo-politikan. Esaterako, normalean arreta nagusia erreforma ekonomikoei jartzen zaien arren, Txinako Alderdi Komunistaren Hirugarren Batzarrean (PCCh), PCCh barneko diziplina izan zen gai nagusia.

# 10. ONDORIOA

Txinak munduko barne-merkaturik handiena duela kalkulatzen da (1.300 milioi kontsumitzaile potentzial baino gehiago). Horren erakusgarri, AIZren bigarren herrialde hartzaile gisa posizionatu da (Txinaren sarrerak % 4 handitu ziren 2018an). Txostenean zehar aipatu den moduan, Txinak inbertsio-fluxuak bereganatzen jarraitzen du fusio- eta erosketa-akordio handien bidez. Atzerriko enpresekin proiektuak egiteko duen jarrera adierazten du horrek, eta hori mesedegarria da EAEko enpresentzat.

Horrez gainera, ez da ahantzi behar Txina posizio geoestrategikoan dagoela; hurbil dago Asian suspertzen ari diren merkatuetatik, eta merkataritza askeko hainbat akordio sinatu ditu. Lehenengo ekonomia da erosketa-ahalmenaren parekotasunaren ikuspegitik, eta, oraindik orain, lan-eskuaren kostuek baxuak izaten jarraitzen dute, egoera aldatzen hasia den arren.

Mundu mailako pandemiak hainbat ondorio eragin dituen arren, Txina atzeraldian sartuko ez den herrialde bakanetako bat izatea espero da. Hala, % 1,2ko hazkunde geldoa mantenduko duela aurreikusten da, eta, ondoren, % 9,2ko hazkundea izatea, Nazioarteko Diru Funtsaren kalkuluen arabera. Horrez gainera, atzerriko dibisen erreserba handiena du, eta horrek nolabaiteko egonkortasuna ematen dio kanpo-zorraren aurrean. Halaber, Txinako merkatuaren dinamismo handiak eta manufaktura-sektorearen eta industria astunaren garapen handiak aukera handiak irekitzen dizkio Euskadiri. Gainera, kontuan izan behar da Txinak industria-hornidurak, kapital-ondasunak eta erregaiak inportatu dituela batez ere, eta Txinako industria-sektoreak BPGaren % 40,1a hartzen duela.

Horrekin loturik, euskal enpresen barneratze-maila oso altua izan ez arren, Txinak ekipamendu-ondasunen eta erdimanufakturen ehuneko handia inportatzen du Euskaditik; hortaz, sektore horiek estrategikotzat hartzen ditugu euskal enpresentzat. Bestalde, Txina eta Euskadiren arteko inportazioetan hazkunderako joera nabaritu da sektore batzuetan (adibidez, erremintak eta tresnak, sektore aeroespaziala, edariak eta pasta eta papera). Eta sektore hauek ere interesgarriak izan daitezke negozio berriak martxan jartzeko: energia berriztagarriak eta automobilgintza (batez ere, auto elektronikoak).

Hori guztia kontuan izanik eta munduko egoera ekonomikoari buruz nolabaiteko ziurgabetasuna dagoen arren, Txinako merkatua suspertzen ari da, eta, beraz, oraindik ere lehentasunezko eta interes handiko merkatu gisa ikusten dugu EAEko enpresentzat.

# 11. ERREFERENTZIAK


- Munduko Bankua (2019): Langabeziaren guztizkoa (populazio aktiboaren guztizkoaren %) (LANEren zenbatespen modelatua)-Txina. 2019 https://datos.bancomundial.org/indicador/SL.UEM.TOTL.ZS?locations=CN
- BasqueTrade Office in Shanghai Database (2020ko apirila).
- Bureau Van Dijk (2020ko apirila): https://www.bvdinfo.com/es-es/
- Central Intelligence Agency (2019ko abendua): China World Factbook. https://www.cia.gov/library/publications/resources/the-world-factbook/attachments/summaries/CH-summary.pdf
- China International Import Export (CIIE) (2019ko azaroa): Bigarren edizioa. https://www.youtube.com/watch?v=dNGhxEFfRgY
- CIVEX (2020ko apirila): Euskadiko Industria eta Enpresa Esportatzaileen Katalogoa. https://www.euskadi.eus/x76aAppWar/buscador_avanzado/buscadorAvanzado
- COFACE for trade (2020ko apirila): Herrialde-arriskua: Txina. https://www.coface.com/Economic-Studies-and-Country-Risks/China
- COMTRADE Database (abril 2020): China: imports and exports. https://comtrade.un.org/data/
- DATACOMEX (abril 2020): Estadísticas de comercio exterior español. China: importaciones y exportaciones. http://datacomex.comercio.es/principal_comex_es.aspx
- Euskadi.eus (2019ko ekaina): "El Lehendakari se reúne con el Vicegobernador de la provincia de Jiangsu". https://www.euskadi.eus/gobierno-vasco/-/noticia/2019/el-lehendakari-se-reune-con-el-vicegobernador-de-la-provincia-de-jiangsu/
- EUSTAT (2020ko otsaila): Kanpo-merkataritzako estatistika (ECOMEX). Euskal Autonomia Erkidegoko esportazioen ranking-a herrialdeka. 2019. https://www.eustat.eus/elementos/ele0005700/Ranking_de_las_exportaciones_de_la_CA_de_Euskadi_por_paises_p/tbl0005722_c.html
- EUSTAT (2020ko otsaila): Kanpo-merkataritzako estatistika (ECOMEX). Euskal Autonomia Erkidegoko inportazioen ranking-a herrialdeka. 2019. https://www.eustat.eus/elementos/ele0005700/Ranking_de_las_importaciones_de_la_CA_de_Euskadi_por_paises_p/tbl0005723_c.html
- EUSTAT (2020ko apirila): 2020/04/21eko prentsa-oharra. 'En febrero de 2020 las exportaciones de la CA de Euskadi bajan un 7,9% y las importaciones un 13,6%'. https://www.eustat.eus/elementos/En_febrero_de_2020_las_exportaciones_de_la_CA_de_Euskadi_bajan_un_79_y_las_importaciones_un_136_/not0017291_c.html
- Nazioarteko Diru Funtsa (NDF) (2019ko apirila): Txinako Herri Errepublikaren datuak. https://www.imf.org/en/Countries/CHN#data

- Nazioarteko Diru Funtsa (NDF) (2020ko apirila): Munduko ekonomiaren azken hazkunde-proiekzioak. https://www.imf.org/es/Publications/WEO/Issues/2020/04/14/weo-april-2020
- Nazioarteko Diru Funtsa (NDF) (2020ko apirila): Transcript of April 2020 Asia and Pacific Press Briefing. https://www.imf.org/en/News/Articles/2020/04/16/tr041520-transcript-of-april-2020-asia-and-pacific-department-press-briefing
- Nazioarteko Diru Funtsa (NDF) (2020ko apirila): World Economic Outlook Database: China. https://www.imf.org/external/pubs/ft/weo/2020/01/weodata/weorept.aspx?pr.x=76&pr.y=14&sy=2014&ey=2021&scsm=1&ssd=1&sort=country&ds=.&br=1&c=924&s=NGDP_RPCH%2CPPPGDP%2CNGDPRPPPPCPCH%2CPCPIPCH%2CPCPIEPCH%2CLUR%2CGGXCNL_NGDP%2CBCA_NGDPD&grp=0&a=
- Nazioarteko Diru Funtsa (NDF) (2019ko urria): World Economic Outlook Database. Global Manufacturing Downturn, Rising Trade Barriers. https://www.imf.org/en/Publications/WEO/Issues/2019/10/01/world-economic-outlook-october-2019
- Nazioarteko Diru Funtsa (NDF) (2020ko apirila): World Economic Outlook Database. The Great Lockdown. https://www.imf.org/en/Publications/WEO/Issues/2020/04/14/weo-april-2020
- ICEX (2020ko apirila): China: Estructura de la oferta. Sector secundario. https://www.icex.es/icex/es/navegacion-principal/todos-nuestros-servicios/informacion-de-mercados/paises/navegacion-principal/el-pais/informacion-economica-y-comercial/estructura-de-la-oferta/index.html?idPais=CN
- ICEX (2020ko apirila): China: sector Exterior https://www.icex.es/icex/es/navegacion-principal/todos-nuestros-servicios/informacion-de-mercados/paises/navegacion-principal/el-pais/informacion-economica-y-comercial/sector-exterior/index.html?idPais=CN#0
- ICEX (2020ko apirila): Estudios e informes. Plan Made in china 2025. https://www.icex.es/icex/es/navegacion-principal/todos-nuestros-servicios/informacion-de-mercados/paises/navegacion-principal/el-mercado/estudios-informes/DOC2016671546.html?idPais=CN
- ICEX (2020ko apirila): Marco Político de China: ‘Sistema de gobierno, partidos políticos y división de poderes’. https://www.icex.es/icex/es/navegacion-principal/todos-nuestros-servicios/informacion-de-mercados/paises/navegacion-principal/el-pais/informacion-economica-y-comercial/marco-politico/index.html?idPais=CN#0
- ICEX (2020ko apirila): Red Exterior. China. ‘Relaciones económicas Internacionales’. https://www.icex.es/icex/es/navegacion-principal/todos-nuestros-servicios/informacion-de-mercados/paises/navegacion-principal/el-pais/informacion-economica-y-comercial/relaciones-economicas-internacionales/index.html?idPais=CN
- International Trade Center (2020ko apirila): http://www.intracen.org
- National Bureau of Statistics of China (NBS) (2020ko apirila): Preliminary Accounting Results of GDP for the First Quarter of 2020. http://www.stats.gov.cn/english/PressRelease/202004/t20200420_1739811.html
- Santander Trade (2020ko apirila): China: Inversión Extranjera. ‘Las IED en cifras’. https://santandertrade.com/es/portal/establecerse-extranjero/china/inversion-extranjera

- Santander Trade (2020ko apirila): China: Política y economía. Contexto económico. ‘Coyuntura económica’. https://santandertrade.com/es/portal/analizar-mercados/china/politica-y-economia
- Santander Trade (2020ko apirila): China: Política y economía. El marco político. ‘El contexto político actual’. https://santandertrade.com/es/portal/analizar-mercados/china/politica-y-economia
- Santander Trade (2020ko apirila): Cifras del Comercio Exterior en China. https://santandertrade.com/es/portal/analizar-mercados/china/cifras-comercio-exterior
- Trading economics (2020ko apirila): China: Economic Indicators. https://tradingeconomics.com/china/balance-of-trade
- Trading economics (2020ko apirila): China: Exports and Imports. https://tradingeconomics.com/china/exports
- United Nations Conference on Trade and Development (UNCTAD) (2019ko uztaila): Munduko inbertsioei buruzko txostena (2019). ‘Las zonas económicas especiales’. https://unctad.org/es/PublicationsLibrary/wir2019_overview_es.pdf
- United Nations Conference on Trade and Development (UNCTAD) (2020ko urtarrila): Investment Policy Hub. ‘New Foreign Investment law and its implementation regulations came into effect’. https://investmentpolicy.unctad.org/investment-policy-monitor/measures/3472/new-foreign-investment-law-and-its-implementation-regulations-came-into-effect



© Agencia Vasca de Internacionalización
Basque Trade and Investment S.A.

BasqueTrade & Investment
Agencia Vasca de Internacionalización
Nazioartekotzeko Euskal Agentzia

GRUPO spri TALDEA

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
BASQUE GOVERNMENT